



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urtarrilaren 20a

8. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan azterketa medikoetarako profesionalek ezarritako epeak betetzeari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina (2. or.).
- Nafarroako Arartekoaren eta Espainiako Arartekoaren arteko erakunde-harremanari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina (13. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan azterketa medikoetarako profesionalak ezarritako epeak betetzeari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeak egindako txostena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan azterketa medikoetarako profesionalak ezarritako epeak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan azterketa medikoetarako profesionalak ezarritako epeak betetzeari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. ).
- II. Osasun Departamentuak igorritako txostena (3. ).
- III. Aplikatzekoa den lege esparrua (7. ).
  1. Estatuko legedia (7. ).
  2. Foru legedia (7. ).
- IV. Berdintasun eta ekitate printzipioak aplikatzea azterketa-kontsultetan (8. ).
- V. Azterketa-kontsulten araubidearen analisia, berdintasun eta ekitate printzipioen argietara, eta kalitatezko osasun laguntza batek eskatzen dituen gehieneko itxaron denboren argietara (9. ).
- VI. Aipatutako lege-esparrutik atera daitezkeen ondorioak (11. ).
- VII. Proposamenak (11. ).

## I. SARRERA

2011ko irailaren 6an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin zezan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan profesionalak azterketa medikoetarako ezarritako epeak ez betetzeari buruz.

Erabakia Nafarroa Bai parlamentu-taldearen eskari bati dagokio. Eskariaren testuan aipatzen da aurreko Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak, Osasun Batzordean, 2010eko urriaren 26an, azterketa medikoetarako epeak ez betetzeari buruz egin zitzaion galdera parlamentario bati erantzunez, baieztatu zuela “aurreikuspenen batez bestekoa 32 egunekoa dela eta lehenengo bisitak bezalaxe kudeatzen dela,” baina parlamentu-talde horrek badakiela egiazki ez dela halakorik gertatzen.

Eskari horri erantzuteko, txosten hau prestatu dugu, non, modu sistematikoan deskribatzen baitira, lehenengo Osasun Departamentuak, erakunde honek eskatuta, egindako txostenaren edukia; bigarrenik, Estatuko eta Foru Komunitateko lege esparrua identifikatu eta deskribatzen da, hartan erregulatzen baitira osasun laguntza jasotzeko gehieneko itxaron denborak, itxaron zerrenden funtzionamendua eta gaixoei itxaronaldian izanzen dituzten bermeak; hirugarrenik, aztertzen da azterketa-kontsultetan berdintasun eta ekitate printzipioak aplikatzen ote diren, printzipio horiek baitira Nafarroako osasun sistemako laguntzaren antolamenduaren buru-buruan daudenak eta pertsonen osasunaren arloan dauzkaten eskubideak eta betebeharrak oinarritzen dituztenak; laugarrenik, egun azterketa-kontsultetarako indarrean dagoen araubidea aztertzen da, berdintasun eta ekitate printzipioen argietara eta kalitatezko osasun laguntzak eskatzen dituen gehieneko itxaron denboren argietara; azkenik, txostenak ondorio batzuk eta haiei dagozkien proposamenak ematen ditu.

## II. OSASUN DEPARTAMENTUAK IGORRITAKO TXOSTENA.

Nafarroako Parlamentuak txosten bat eskatu du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren balizko ez-betetzeari buruz, espezialitate desberdinetan profesionalak ezarritako azterketa medikoetarako epeak dagokienez. Bada, txosten hori egiteko, Osasun Departamentuari eskatu zitzaion hilabeteke epean erakunde honetara txosten bat bidal zezan, azterketa medikoekin zerikusia duen guztiari buruzkoa, espezialitate guztietan, bai kanpoko kontsulter dagokienez, bai ospitale-kontsulter dagokienez ere, eta, bereziki, haietarako espezialitate medio desberdinetako arauetan edo protokolo

medikoetan, bai eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezarritako prebentziozko programetan ere, ezarritako edo aurreikusitako epeak erreparatuta.

2011ko azaroaren 4an, Osasun Departamentuaren txostena jaso genuen. Honakoa dio txosten horrek, hitzez hitz:

“Izenpetzen duen Osasun kontseilariak, IP02-11 espedientea dela-eta, hurrengo txostena bidaltzen dizu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Laguntza Espezializatuan eta Buru Osasunean azterketak egiteko itxaron zerrenden egoerari buruz:

Azterketetarako dauden itxaron zerrenden egoera eta haren bilakaera baloratu ahal izateko, bi data hartu ditugu erreferentzia gisa: bata 2010eko abenduaren 31 eta bestea aurtengo irailaren 30a. Bi data horiek aukera emanen digute itxaron zerrendek azken hilabeteetan izan duten bilakaera aztertzeko.

Txosten honen eranskinean ikus daitekeen bezala, honakoak bereizi ditugu: sareko ospitale bakoitzaren itxaronaldiak –Nafarroako Ospitale Multzoa (Ubarmin Klinika kenduta), Ubarmin Klinika, Tuterako Reina Sofia Ospitalea eta Lizarrako García Orcoyen Ospitalea– eta Nafarroako ospitale sareko itxaronaldiak, orokorrean.

Berariaz aipatzen dugu zenbat gaixo dauden itxaroten azterketak egiteko, eta, garrantzitsuena dena, zenbat dauden prospekzioko batez besteko itxaron denboran –aurreikusitakoaren arabera, azterketa egiteko dauden gaixoei itxaron beharreko denbora–.

Halaber, hiru azterketa mota bereizten dira. Izan ere, mota bakoitzak ikuspuntu klinikotik daukan garrantzia dela-eta, itxaron denbora desberdinak daude: azterketa normalak, lehenengo kontsultetako emaitzak emateko azterketak eta lehentasunezko azterketak, oinarritzko osasun laguntzatik edo espezializatetatik eska daitezkeenak. Bestalde, hiru mota horiek batera ematen duten kopurua ere ematen dugu zutabe batean.

Azterketa baterako itxaron zerrendan dauden gaixoentzako bermeen eskubideari dagokionez, ez dago horri buruzko inongo arau edo erregelamendurik, osasun administrazioaren konpromiso hori jasotzen duenik.

Osasun Laguntza Espezializatuaren arloko Itxaronaldien Bermeei buruzko Foru Legeak lehen kontsulter eta ebakuntza kirurgikoen esparrua hartzen du soilik.

Bestalde, espezialitate desberdinetan protokolo medikoak edo jardunbide medikoaren gidak –non ondoz ondoko kontsuluten lehentasunak ezartzen diren– egoteari dagokionez, esan behar dugu halakorik ez dagoela, zeren eta, horri dagokionez, oso presente eduki behar baitugu azterketak eta haien lehentasunak izaera guztiz klinikoko erabakiak izan behar direla, eta horri lotu behar zaiola gaixotasun bakoitzean gaixo jakin batek une jakin batean duen egoera, eta ez hainbeste jardunbide klinikoen aldagarritasuna muga dezakeen arau zorrotz bat.

Hala eta guztiz ere, prozesu onkologikoen diagnostikoan eta tratamenduan ardura duten espezialitate guztiak ordezkaturik dauden kasuan kasuko tumore-komiteak dira patologia onkologikoen tratamendurako –zehazkiago, bularreko minbiziaren eta minbizi ginekologikoen jarraipenean– irizpideak ezartzen dituztenak, azterketen maiztasunari dagokionez eta azterketa horiezaz arduratu behar diren espezialitateei dagokienez ere.

Halaber, dokumentaziorik badago, non bularreko minbiziaren patologia onkologikoa duten gaixoen arretarako zirkuituen ereduak biltzen baitira, bai eta nork bere buruari zita emateko protokoloak jartzeko ereduak ere, azterketa-kontsuluten agenden kudeaketa- zein plangintza-lanera eta bularreko prozesu onkologikoak dituzten gaixoen irisgarritasuna erraztera orientatuak, prozesu horietako arretarako irizpide klinikoen batasuna ekarriko duten jardunbide klinikoko gidak ezartzera inolaz ere lotuta egon gabe.

Bestalde, eta planteamendu orokor bat eginez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko

Gerentziaren 2006ko ebazpen bat badago, non “Iruñeko Barrutiko Kontsulta Espezializatuen Programaziorako eta Funtzionamendurako Arauak” jasotzen baitira, haiek kontsulta anbulatorio espezializatuetakoa jardueren antolamenduan eta funtzionamenduan aplikatzeko. Arau horiek inplikaturiko alde guztiengan dute eragina –zehazki, oinarrizko osasun laguntzan, laguntza espezializatuan eta Laguntza Anbulatorioko Koordinazioko Zuzendari-ordetzako Harrera Atalean–, eta haien helburua da funtzionamendu-arau batzuen protokoloa ezartzea, gaixoak deribatzeari eta kontsulta espezializatuen jarduera planifikatzeari dagokienez, bai lehenengo kontsuluten modalitatean, bai azterketetan.

#### ARGITASUN TEKNIKOAK

1- Batez besteko itxaronaldien adierazleak gai- xoei, azterketa-kontsultarako hasiera batean aurreikusitako datatik aurrera, itxaron beharreko egun naturalak aipatzen ditu.

2- “Emaitzen ondoz ondoko” kontsuluten modalitate berrespen diagnostikoa egitekoa da, aurretiko kontsulta batean adierazitako proba osagarriak baloratzeko egiten dena, aurretiko kontsulta hori lehenengoa izan nahiz lehenengoaren ondokoa izan.

3- “Lehentasunezko azterketa” da gaixoen inguruabar klinikoei erreparatuta eta sendagile espezialistek nahiz oinarrizko laguntzakoek berariaz eskatuta lehentasunez egin behar dena.

Informazio numerikoa dakarren PDF formatuko dokumentu bat erantsi dugu.”

## ONDOZ ONDOKO KONTSULTETARAKO ITXARON ZERRENDAK 2010 12 31n

	ONDOZ ONDOKOAK, GUZTIRA		ONDOZ ONDOKO NORMALAK		EMAITZETARAKO ONDOZ ONDOKOAK		LEHENTASUNEZKO ONDOZ ONDOKOAK	
	PERTSONA KOPURUA	ITXARONALDI BATEZ BESTEKOA	PERTSONA KOPURUA	ITXARONALDI BATEZ BESTEKOA	PERTSONA KOPURUA	ITXARONALDI BATEZ BESTEKOA	PERTSONA KOPURUA	ITXARONALDI BATEZ BESTEKOA
NO NAFARROAKO OSPITALEA	29139	120	24772	270	2878	32	1489	40
NO BIDEKO AMA BIRJINA OSPITALEA	31722	111	27331	254	2521	469	1808	46
NO UBARMIN KLINIKA	6328	170	5724	197	318	27	286	25
<b>NO</b>	<b>67189</b>	<b>120</b>	<b>57827</b>	<b>255</b>	<b>5717</b>	<b>224</b>	<b>3583</b>	<b>42</b>
REINA SOFÍA OSPITALEA	13732	106	7768	498	1807	63	4090	74
LIZARRAKO OSPITALEA	13281	262	12803	524	364	40	87	100
<b>LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO</b>	<b>94202</b>	<b>138</b>	<b>78398</b>	<b>323</b>	<b>7888</b>	<b>179</b>	<b>7760</b>	<b>59</b>
BURU OSASUNEKO ZENTROAK	1289	104	705	28			555	18

\* BATEZ BESTEKO ITXARONALDIA: GAIXOEK EGUN NATURALETAN ITXAROTEN DUTEN BATEZ BESTEKO DENBORA AZTERKETA KONTSULTARAKO HASIERA BATEAN EZARRI ZEN EGUNETIK AURRERA

\* LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO SAREAN, ONDOZ ONDOKO KONTSULTEN GUZTIZKOARI DAGOKION INFORMAZIOAN APARTEKOAK IZAN DIREN ONDOZ ONDOKO 156 KONTSULTA ERE SARTU DIRA

\* BURU OSASUNEKO ZENTROETAN, ONDOZ ONDOKO KONTSULTEN GUZTIZKOARI DAGOKION INFORMAZIOAN APARTEKOAK IZAN DIREN ONDOZ ONDOKO 29 KONTSULTA ERE SARTU DIRA

**ONDOZ ONDOKO KONTSULTETARAKO ITXARON ZERRENDAK 2011 09 30n**

	ONDOZ ONDOKOAK, GUZTIRA		ONDOZ ONDOKO NORMALAK		EMAITZETARAKO ONDOZ ONDOKOAK		LEHENTASUNEZKO ONDOZ ONDOKOAK	
	PERTSONA	ITXARONALDI	PERTSONA	ITXARONALDI	PERTSONA	ITXARONALDI	PERTSONA	ITXARONALDI
	KOPURUA	BATEZ BESTEKOA	KOPURUA	BATEZ BESTEKOA	KOPURUA	BATEZ BESTEKOA	KOPURUA	BATEZ BESTEKOA
NO NAFARROAKO OSPITALEA	33173	134	28402	411	2875	56	1895	53
NO BIDEKO AMA BIRJINA OSPITALEA	34985	132	30343	500	2826	48	1705	39
NO UBARMIN KLINIKA	7126	203	6489	189	411	23	226	23
<b>NO</b>	<b>75284</b>	<b>140</b>	<b>65234</b>	<b>430</b>	<b>6112</b>	<b>50</b>	<b>3826</b>	<b>45</b>
REINA SOFÍA OSPITALEA	14667	98	8021	415	828	40	5755	87
LIZARRAKO OSPITALEA	10877	187	10363	418	382	26	105	51
<b>LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO</b>	<b>10082</b>	<b>139</b>	<b>83618</b>	<b>427</b>	<b>7322</b>	<b>48</b>	<b>9686</b>	<b>70</b>
BURU OSASUNEKO ZENTROAK	3405	68	2344	43			983	25

\* BATEZ BESTEKO ITXARONALDIA: GAIXOEK EGUN NATURALA ETAN ITXAROTEN DUTEN BATEZ BESTEKO DENBORA AZTERKETA KONTSULTARAKO HASIERA BATEAN EZARRI ZEN EGUNETIK AURRERA

\* LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO SAREAN, ONDOZ ONDOKO KONTSULTEN GUZTIZKOARI DAGOKION INFORMAZIOAN APARTEKOAK IZAN DIREN ONDOZ ONDOKO 202 KONTSULTA ERE SARTU DIRA

\* BURU OSASUNEKO ZENTROETAN, ONDOZ ONDOKO KONTSULTEN GUZTIZKOARI DAGOKION INFORMAZIOAN APARTEKOAK IZAN DIREN ONDOZ ONDOKO 78 KONTSULTA ERE SARTU DIRA

### III. APLIKATZEKO DEN LEGE ESPARRUA.

#### 1. ESTATUKO LEGEDIA.

Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, 4. artikuluan, herritarrek osasun sistema nazional osoan izanen dituzten eskubideak ezartzen ditu, eta artikuluko b) atalean aldarrikatzen du herritarrek bizi diren autonomia erkidegoan osasun laguntza jasotzeko daukaten eskubidea, gehieneko epe batean, legeko 25. artikuluan ezarritako moduan.

25. artikuluko horrek ezartzen du “Lurralde arteko Kontseiluak oinarrizko irizpide batzuk erabakiko dituela osasun sistema nazionalako prestazioak jasotzeko gehieneko denbora bat bermatzeko, eta oinarri horiek errege dekretuz onetsiko direla. Autonomia erkidegoek, esparru horren barrenean, beren zerbitzuen zorroan, gehieneko denborak zehaztu beharko dituzte.”

Bada, uztailaren 15eko 1039/2011 Errege Dekretuaren bitartez, Osasun Sistema Nazionalako osasun prestazioak jasotzeko gehieneko denbora bermatzeko irizpideak ezarri dira. Alabaina, esparru-irizpide horiek ebakuntza kirurgiko jakin batzuei buruzkoak dira soil-soilik. Errege dekretu horren bitartez osasun sistema nazionalako erabiltzaileei laguntza jasotzeko bermatzen zaizkien gehieneko denborak 180 egun naturalekoak dira bihotzeko kirurgia balbularrerako, koronarioetako bihotzeko kirurgiarako, kataratetarako, aldakako protesietarako eta belauneko protesietarako.

#### 2. FORU LEGEDIA.

*A. Uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea, Osasun laguntza espezializatuen arloko itxaronaldien bermeei buruzkoa.*

3. artikuluko 1. idatz-zatian, foru lege horrek ezartzen du laguntza espezializatuko kontsultetan, hogeita hamar egun balioduneko gehieneko epea bermatzen dela, sendagileak eskaria egiten duenetik, eta lehentasunezko kontsultetan, berriz, hamar egun balioduneko epea, sendagileak eskaria egiten duenetik.

Eta artikuluko berean, 4. idatz-zatian honakoa ezartzen du: Kanpoko kontsulta programatuetan, bermaturik egonen dira laguntza espezializatuko kontsultak, baldin eta azterketak ez badira, eta betiere azterketa egiteko itxaron beharreko denborak ez badu ekartzen gaixoaren osasunak okerrera egiteko arriskurik. Agindu horrek gehitzen du “azterketatzat” jotzen dela gaixo bati entitate patologiko jakin baten jarraipenerako espezialitate berean egiten zaion kontsulta.

5. artikuluko bermeen sistema arautzen du, eta zehazten du, foru legeko 3. artikuluan finkaturiko itxaronaldiak gainditzen diren kasuetan, gaixoak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari lehentasunezko osasun laguntza eskatu ahalko diola, eta behartuta egonen dela, gaixoak hala eskatuz gero, berehalako osasun laguntzako erantzuna ematera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sare publikoko edozein osasun zentrotan edo, bestela, eta modu subsidiarioan, osasun sistema publikoko zentro itunduetan.

7. artikuluko, berriz, informazio sistema arautzen du, eta ezartzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hileroko egiazko informazioa emanen duela, Nafarroako Gobernuaren webgurearen bitartez eta herritarrek eskueran dituzten bestelako komunikazio ofizialeko bide batzuen bitartez, kirurgia-prozeduretarako, kanpoko kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu guztietan dauden gaixo-kopuruari buruz eta itxaron zerrendei buruz.

Azkenik, 8. artikuluko bidez, “Nafarroako Itxaron Zerrendan dauden Gaixoen Erregistroa” sortzen da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikia, non laguntza espezializatu programatu eta ez larrialdikoa eskatzen duten gaixo guztiak jasoko baitira. Ezinbestekoa izanen da gaixoa erregistro horretan egotea ezarritako bermeen onura jasotzeko.

*B. Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen apirilaren 26ko 21/2010 Foru Dekretua.*

Hemen interesatzen zaigunari erreparatuta, nabarmendu beharra dago foru dekretu horretako 2.3.b) artikuluko, uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legeko 3.4 artikuluan esandako berretsiz, ezartzen duela foru dekretuaren aplikazio esparrutik kanpo geratuko direla kanpoko kontsulta programatuak, azterketa gisa hartzen direnak, baldin eta itxaron beharreko denborak ez badu ekartzen gaixoaren osasunak okerrera egiteko arriskurik.

*C. Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea.*

Aipatutako foru arauetan osasun laguntza jasotzeko ezarritako gehieneko epeak egoki interpretatzeko eta aplikatzeko, adierazitako osasun laguntza jasotzeko eskubidea eraginkor egiteko xedez, komeni da foru lege horretako honako arauak kon-tuan izatea:

5. artikulua. Osasun laguntzaren esparruko eskubide orokorrak.

(...)

2. Kasuan kasuko osasun prestazioak eskuratzeko eta lortzeko eskubidea, legez ezarritako baldintzetan, osasun-egoera babestu, zaindu edo lehengoratzeko xedez.

(...)

10. Osasun laguntza jasotzeko eskubidea gehieneko epe jakin batean; eta, berandutze kasuetan, berme-sistema bat aplikatzeko eskubidea.

13. artikulua. Osasun laguntza beranduntzako gehieneko epe batean jasotzeko eskubidea.

Nafarroako osasun sisteman, pertsona orok du eskubidea osasun laguntza behar den denboran jasotzeko, eta eskubidea du, halaber, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean eta hori garatzeko araudian ezarrita dauden erantzuteko gehieneko epeak ziurtatuak izateko.

18. artikulua. Giza kalitate eta kalitate zientifiko oneko osasun laguntza jasotzeko eskubidea

(...)

3. Ospitaleraturiko pertsoneri alta planifikatzeko eskubidea ziurtatuko zaie, halako moduz non, alta ondoren zainketak behar badituzte, zainketa hauek bermatuta egon daitezzen.

25. artikulua. Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak.

Osasun Administrazioak ekintza eta neurri berariazkoak bultzatuko ditu gaixo kronikoentzat, laguntza-maila desberdinen artean behar den koordinazioa bilatzeko eta gaixotasun kronikoak dauzkaten pertsonen behar dituzten zainketen behar den jarraitutasuna emateko.

40. artikulua. Itxaron zerrendei buruzko informazioa.

1. Osasun Administrazioak hileroko egiazko informazioa emanen du, Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez eta herritarrek eskueran dituzten bestelako komunikazio ofizialeko bide batzuen bitartez, kirurgia-prozeduretarako, kanpoko kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu guztietan dauden gaixo-kopuruari buruz eta itxaron zerrendei buruz.

2. Osasun Administrazioak banakako informazioa emanen du, gaixoak edo erabiltzaileak eskatuta, osasun laguntza jasotzeko itxaron zerrendei buruz, bai eta berme-sistemei buruz ere, arau

bidez finkaturiko gehieneko itxaronaldiak gainditzeko baldin badira.

#### **IV. BERDINTASUN ETA EKITATE PRINTZIBIOAK APLIKATZEA AZTERKETA-KONTSULTETAN.**

Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeko 23. artikulua ezarri zuen Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaile guztiek Osasun Zerbitzu Komunuen Zorroan ezarritako osasun prestazioak eskuratu ahalko dituztela berdintasun efektiboko baldintzetan.

Bestalde, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 4. artikuluko c) letrak ezartzen du osasun-jarduerak eta -zerbitzuak ekitate printzipioari doituko zaizkiola laguntza-maileri dagokienez eta berdintasun printzipioari herritar guztiek osasun sistema erabiltzeko baldintzei dagokienez.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko osasun arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak, 3.1 artikuluan, ezartzen du honakoa dela osasun arloan pertsonen eskubideak eta betebeharrak oinarritzen dituen printzipio orokorra: "Berdintasuna izatea eskueran dauden osasun-zerbitzu guztietarako eta osasun arloko profesioletarako sarbidean, eta osasun egoera bakoitzari dagozkion osasun laguntza eta zainketak jasotzean, egoera pertsonalarengatik inongo bazterketarik eragin gabe." 5. artikuluan, gaixoei osasun laguntzaren aroan dauzkaten eskubideak aipatzen dira, eta horien artean aipatzen da laguntza maila desberdinetan osasun laguntza integral eta jarraitua jasotzeko eskubidea, zeina berdintasun efektiboko baldintzetan bermatzen baita.

Berdintasun eta ekitate printzipioak dira, beraz, azterketa-kontsultak antolatzeke funtsa eta oinarria, zeren eta azterketa medikoak osasun laguntza espezializatuaren mailako kategoria edo modalitate bat baitira.

Berdintasuna, gure antolamendu juridikoaren goreneko balio gisa, ez da soilik Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan islatutako berdintasun formala; izan ere, Konstituzioko 9,2 artikuluan jasotako berdintasun substantibo edo materialean ere agertzen da; hain zuzen ere artikulua horren arabera, botere publikoek behar diren baldintzak sustatu beharko dituzte herritarren berdintasuna erreala eta efektiboa izan dadin. Eta osasunaren esparruan, berdintasuna honakoa datza: justifikatu gabeko tratu desberdina ez jasotzea, osasun zerbitzuen gainerako erabiltzaileekin alderatuta.



Ekitatearen printzipio juridikoa zerbitzuak eta prestazio sozialak arautzeko lege gehienetan sartu da, eta berariaz sartu da bultzagarria, akui-lua izan dadin zerbitzu horiek ematen dituzten administrazioentzat, hain zuzen ere gizarte zuzenago eta ekitatiboago bat eraikitzen aurrera egiteko lortu behar diren helburuak planteatzeko, behar diren programak eta jarduerak garatzearen bitartez. Izan ere, osasunari aplikatutako ekitatearen printzipioak eskatzen du osasun baliabideak populazio-taldearen artean halako moduan banatzea non osasun egoeren artean desberdintasunak ahal den guztian gutxituko diren, guztientzat antzeko estandarrak bermatuz, bai eta osasun laguntzan kalitate bera bermatuz ere.

Horrenbestez, Nafarroako osasun sistema publikoaren buruan eta ardatzean berdintasun efektiboaren printzipioa egonen da, osasun laguntza lortzeko baldintzei dagokienez, eta ekitate printzipioa laguntza-mailei dagokienez. Printzipio horiek, praktikan, beraiekin ekartzen dute gaixo guztientzako laguntzan antzeko kalitatea eskaintzea, lehengo kontsultako gaixoak izan nahiz azterketako gaixoak izan. Eta behar den laguntza jasotzeko itxaronaldiak dira osasun zerbitzu baten kalitatea neurtzeko parametro edo adierazle nagusietako bat.

Eta hori horrelaxe da osasuna gizakion bizitzako baldintza garrantzitsuenetako bat delako eta, horrenbestez, botere publikoek lehentasunezko arreta eskaintzen diotelako. Horixe da izaera unibertsalekoa eta doakoa duen osasun sistema bat sortzea eta mantentzea justifikatzen duena. Eta osasuna gauzatzearen eta banatzearen arloan, hau da, herritarrentzat osasun maila ahal den handienak lortzearen arloan, haien artean inongo bereizkeriarik egin gabe, ekitatea gure antolamendu juridikoan sartu da, justizia sozialaren kontzeptu zabal bat osatuz.

Azken batean, parametro horiei jarraituz, osasun zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko berdintasun efektiboak eta ekitateak eskatzen dute antolaketa juridiko egokia eta, halaber, osasun zerbitzuen antolaketa eta hornikuntza nahikoa eta efizientea, halako suertez non bermatuko baita prestazio eta zerbitzu horiek erabiltzeko aukera fisiko hutsaz gainera, haiek behar diren kalitate baldintzetan erabiltzeko bidea. Eta exijitzekoa den kalitateak ezinbestez eskatzen du laguntza jasotzeko gehieneko itxaronaldi batzuk bermatzea. Horrela betetzen dira berdintasun eta ekitate printzipioak, zeinak Nafarroako osasun sistemaren antolaketaren eta prestazioen buru-buruan baitaude eta zeinek osasun arloan gaixoek dituzten eskubideak eta betebeharrak oinarritzen baitituzte.

## **V. AZTERKETA-KONTSULTEN ARAUBIDEAREN ANALISIA, BERDINTASUN ETA EKITATE PRINTZPIOEN ARGJETARA, ETA KALITATEZKO OSASUN LAGUNTZA BATEK ESKATZEN DITUEN GEHIENENKO ITXARON DENBOREN ARGJETARA.**

Aipatu dugun bezala, txosten hau oinarritzen da osasun laguntza bat emateko gerta daitekeen atzerapenean, zehazki, espezialitate desberdinetan profesional desberdinek banakako osasun-azterketak egiteko dauzkaten atzerapenean, hasiera batean aurreikusitako datarekin alderatuta.

Osasun Departamentuak igorritako txostenaren arabera, azterketa-kontsultarako hasiera batean ezarritako datatik honakoa da gaixoek, batez beste, itxaron behar izaten duten denbora:

2010. urtean:

### Laguntza espezializatua:

Ondoz ondoko kontsultak, guztira: 138 egun

Ondoz ondoko kontsulta normalak: 323 egun

Ondoz ondoko kontsultak,  
emaitzak ematekoak: 179 egun

Ondoz ondoko kontsultak,  
lehentasunezkoak: 59 egun

### Adimen osasuna:

Ondoz ondoko kontsultak, guztira: 104 egun

Ondoz ondoko kontsulta normalak: 28 egun

Ondoz ondoko kontsultak,  
lehentasunezkoak: 18 egun

2011. urtea

### Laguntza espezializatua:

Ondoz ondoko kontsultak, guztira: 139 egun

Ondoz ondoko kontsulta normalak: 427 egun

Ondoz ondoko kontsultak,  
emaitzak ematekoak: 48 egun

Ondoz ondoko kontsultak,  
lehentasunezkoak: 70 egun

### Adimen osasuna:

Ondoz ondoko kontsultak, guztira: 68 egun

Ondoz ondoko kontsulta normalak: 43 egun

Ondoz ondoko kontsultak,  
lehentasunezkoak: 125 egun

Ikus daitekeen bezala, azterketa medikoak egiteko atzerapenak nabarmenagoak dira azterketa normaletan, eta behera egiten dute lehen kontsul-

tetako emaitzak eskuratzeko azterketa-konsulten kasuan eta lehentasunezko azterketa-konsulten kasuan.

Halaber, Osasun Departamentuak emandako datuetan antzematen da azterketa medikoak egiteko itxaron zerrendak aldakorrek direla, azterketak egiteko hiru moten barruan, kasuan kasuko ospitalearen arabera.

Hasiera batean azterketa-konsulta egiteko aurreikusitako dataren aldean gertatzen diren atzerapen horiek honakora garamatzate: osasun publikoak dituen baliabide materialak eta giza baliabideak gaixoen premietarako egokiak ez direla esatera. Egoera horrek, izan ere, laguntza jasotzeko itxaron zerrendak eragiten ditu, eta itxaron zerrenda horiek, bereziki, gaixoek pairatzen dituzte, zeren eta osasun arazo baten konponbidean atzeratze hutsa edo behin betiko diagnostikoa ez ezagutzea edo gaixotasunaren bilakaeraren kontrolean atzeratzea, gaixotasuna hain larria ez izanda ere, kaltegarriak baitira berez, eta gaixoarengan antsietatea eta babesgabetasun-sentipena eragiten baitute –horiek, izan ere, gaixoaren bizi-kalitatean eragina dute, eta, gainera, sintomen eta gaixotasunaren mehatxuen pertzepzioa areagotu ditzakete–.

Hori dela eta, administrazio publikoek behar diren bitartekoak jarri behar dituzte osasun zerbitzuen eskaintza eta laguntzaren eskaria egokitzeke. Alderdi horretan, nahitaez nabarmendu beharra dago antolamendu-neurriak oso garrantzitsuak direla, zeren eta, askotan, laguntza medikoaren atzerapenak gertatzen baitira soilik sistemaren beraren arintasun faltaren ondorioz, aurreikuspen faltaren ondorioz, deskoordinazioaren ondorioz eta antolamendu zaharkituen ondorioz; azken batez, balizko efizientzia falta baten ondorioz.

Egiaztatu dugun bezala, gure antolamendu juridikoan ez dago arau bat azterketa-konsulten esparruan itxaron zerrendak nahikotasunez arautzen duenik. Laguntza onkologikoa bera ere ez da salbuespena, zeren eta Bularreko Minbiziaren aurkako Aurreneurrien Programa berrantolatzen duen maiatzaren 15eko 61/2003 Foru Aginduak, zeinak antzemandako patologien tratamendurako eta jarraipenerako programa bat ere jasotzen baitu, 5. artikuluan soilik zehazten baitu 28 eguneko gehieneko epe bat diagnostikoa baieztatzen denetik tratamendu mediko-kirurgikoari hasiera emateko. Gainerako kasuetarako, apirilaren 6ko 12/1999 Foru Legeko 1. artikulura jotzen du, foru lege horrek arautzen baitu itxaron zerrenden gaineko ebaluazio eta jarduketara programa, gehieneko itxaronaldiak betetzeari dagokionean (gaur egun, Osasun Laguntza Espezializatuaren arloko Itxaro-

naldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea).

Laguntza espezializatuko lehenengo konsultetako gaixoak ofizialki existitzen den “Nafarroako Itxaron Zerrendan dauden Gaixoen Erregistroan” jasotzen dira, baina ez da gauza bera gertatzen azterketa-konsulta baten zain dauden gaixoeekin; izan ere, badakigu ez zaiela aplikatzen erregistro hori sortu zuen gehieneko itxaronaldiei buruzko foru araua. Hala eta guztiz ere, Osasun Departamentuaren txostenean ezer ere esaten ez den arren azterketaren zain dauden gaixo horiek kontrolatzeko sistemari buruz, uste izatekoa da osasun etxeek gaixo horien erregistroren bat izanzen dutela, behar diren kontroletarako, espezialitate eta gaixotasunen arabera itxaron zerrendak egiteko, lehentasunak ezartzeko eta abarretarako.

Nolanahi ere, abiapuntu hartuta gaixo bakoitzak erantzun gutxi-asko berehalakoa behar duela daukan gaixotasunaren arabera, antzematen dugu azterketa-konsultarako hasiera batez aurreikusitako dataren aldera gerta daitezkeen atzerapenak, gaur egun gaixoak ustez pairatzen ari direnak, eskatutako osasun laguntzaren etete bat direla eta, horrenbestez, osasun laguntzarako eskubidea eta osasuna babestuta izateko konstituzio-eskubidea etetearen arrazoiak direla, eta, gainera, osasun laguntzaren buru-buruan ageri diren berdintasun-eta ekitate printzipioetatik urruntzea dakartela; izan ere, behar adina justifikazio ez du azterketa-konsultaren zain dauden gaixoen eta lehenengo konsulta behar duten gaixoen artean gertatzen ari den tratu desberdinak –arauen arabera zein modu faktikoan–, eta hori bereziki larria da itxaronaldiak osasun egoerarako kaltea dakarren kasuetan.

Zalantzarik gabe gaixo batek, unibertsaltasun eta doakotasun printzipioak gailentzen diren baina bitartekoak mugatuak dituen osasun sistema publiko batean, geroratze batzuk pairatu beharko ditu larrialdikoak ez diren osasun prestazio batzuk eskuratzeko, eta itxaronaldia berezkoa da osasun zerbitzu publiko batean. Baina, aurrekoa onartuta ere, edozein zerbitzu publikok berezko dituen mugak saihestezinak izateagatik, geroratzeak ez dira onartzekoak epeek, ikuspegi klinikotik nahiz pertsonaletik, toleratzekoak diren mugak gainditzeko badiuzte. Gauza bat da hamabost egun edo hilabete bat itxaron behar izatea sendagile espezialista batek azterketa batean artatua izateko, eta beste bat da “itxaron zerrenda” batean geratzea –itxuraz, gainera, formalizatu gabeko zerrenda bat izaki–, eta zerrenda horretan egotea zenbait hilabetetako geroratzeak pairatzen ari diren ehunka gaixo (427 egunera arteko itxaronaldiak, 2011ko ondorengo ondoko konsulta normaletan). Izan ere,

geroratzearen ondorioak zuzenean pairatzen dituzte itxaronaldiei buruzko zehaztapen orientatiborik edo gutxi gorabeherakorik ez duten laguntza-dinamikan sarturik dauden gaixoek berek.

Gaixo bat klinikoki egokia den epe baten barruan artatu beharko da. Horregatik, ez da onargarria, ez osasunaren eta laguntzaren antolaketarako, ez herritarrentzat ere, hilabeteak edo are urtebete baino gehiago itxaron behar izatea hasierako datatik kontatuta, espezialista batek gaixoak azterketa-konsultetan artatzeko.

Horrenbestez, badirudi beharrezkoa dela gutxieneko berme batzuk ezartzea azterketa medikoe-tan ikuspegi klinikotik adierazitako denborak betetzeko eta ulertzeko Nafarroako Foru Komunitateko osasun arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 5.10 eta 40. artikulua bete egin direla, bai eta osasun arloko eskubide eta betebeharrak horien oinarrian dauden berdintasun- eta ekitate-printzipioak ere.

## VI. AIPATUTAKO LEGE-ESPARRUTIK ATERA DAITEZKEEN ONDORIOAK.

*Lehena.* Estatuko oinarrizko legediak ez du gehieneko eperik ezarri ez kanpoko kontsultetara joan ahal izateko, ez lehenengo kontsultetarako, ez eta azterketa medikoetarako ere.

*Bigarrena.* Foru arauak laguntza eskuratzeko gehieneko epeak araupetu eta ezarri dituzte, bai eta ez-betetze kasuetan egonen diren bermeak ere, osasun laguntza espezializatuko lehenengo kontsultetan eta ebakuntza kirurgikoetan, baina azterketa medikoak araupetze horretatik kanpo geratu dira.

Alabaina, azterketa-konsultei dagokienez, garrantziko irizpide bat ezarri da: Azterketa egiteko itxaronaldiak gaixoaren osasun egoera okertzea dakarrenean, horrelako kontsultak ere itxaronaldiei buruzko foru arauaren aplikazio-esparruan sartuko da; izan ere, horretatik ondoriozta daiteke gaixoaren osasun egoerak okerrera egiten duela aurreikusten denean, azterketa egiteko gehieneko epea 30 eguneko izanzen dela, sendagile espezialistak azterketarako finkaturiko egunetik kontatzen hasita.

Legezko eta erregelamenduzko aurreikuspen hori aplikatzeko arazo praktikoa honakoan datza: zehaztea zein kasutan den aurreikustekoa itxaronaldiaren ondorioz gaixoaren osasun egoera okerragotzea. Erakunde honen iritziz, sendagile espezialistak finkatu beharko du azterketa egiteko data, eta bera izanzen da berariaz adieraziko duena data hori gairatzeak eta gaixoa itxaron zerrendan sar-

tzeak haren osasun egoera okerragotzea ekarri ote dezakeen.

*Hirugarrena.* Baiezta daiteke ezen, ikuspegi soilik juridiko batetik eta orokorrean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez dituela epeak urratzen azterketa medikoen kasuan, zeren eta foru arauak ez baitute esparru horretarako gehieneko itxaron denborarik ezartzen. Gehienez ere, legearen ez-betetzea gertatuko da geroratzeko azterketa medikoen kasuan, baldin eta geroratzeko horrek gaixoaren osasuna okerragotzea ekartzen badu.

Ezin dira aplikatu, orokorrean eta analogiaz, lehen kontsultetarako ezarritako epeak, zeren eta ez baitira gertatzen Kode Zibilaren 4.1 artikulua arabera arauen aplikazio analogikoa justifikatzen eta ahalbidetzen duten baldintzak; izan ere, nabarmena denez, ez gaude lege-hutsune baten aurrean eta, gainera, ez dago antzekotasunik edo arrazoi-identitate analogiaren xede diren kasuetan, hau da, lehenengo kontsultan eta azterketa-konsultetan.

*Laugarrena.* Arestian esandakoa gorabehera eta epe juridikoaz harantzago, zalantzagabekoa dirudi osasun administrazioak lan egin behar duela gaur egun espezialitate desberdinetan azterketa medikoak egiteko dauden itxaronaldiak nabarmen gutxitzeko, eta horretarako neurri egokiak jarri behar dituela.

*Bosgarrena.* Itxaronaldian dauden gaixo guztiek, azterketa medikoak itxaroten daudenak barne, eskubidea dute informazio osoa, eskuragarria eta etengabea izateko itxaron zerrendei buruz, beren itxarote-egoerari buruz, azterketa-konsulta egiteko batez besteko epeari buruz eta beren osasun-egoerarako berme eta balizko aukerei buruz.

*Seigarrena.* Osasuna babestua izateko eskubidea urratzen baldin bada –osasun laguntza egokirako eskubidean edo berdintasun- eta ekitate-printzipioen hausturan zehazturik– gaixoari azterketa-konsultan banakako arreta emateko geroratzeko bidegabeak pairaraztearen ondorioz gertatuko da urraketa hori, bai eta horri buruzko informaziorik ez ematearen ondorioz ere. Horrek, izan ere, berarekin ekarriko luke gaixotasunaren jarraipenean desfase handia pairatu behar izatea.

## VII. PROPOSAMENAK.

Erakunde honek, aplikatzekoak diren arauak eta azterketa-konsultek gaur egun itxaron denborrei dagokienez Nafarroako osasun sisteman duten errealitatea aztertuta, Osasun Departamentuak emandako informazioaren arabera, egokitzen jotzen du, uztailaren 3ko 4/4000 Foru Legeko 16.

artikuluko b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera, honako iradokizunak egitea osasun administrazioari, azterketa kontsulten antolaketa eta kudeaketa hobetze aldera, betiere gaixoei pairatu behar izaten dituzten itxaronaldiak gutxitzeko:

a) Osasun espezialitate desberdinetako azterketa medikoetarako itxaronaldien egoerari eta haien arrazoiei buruzko ebaluazio sakona egitea.

b) Ebaluazio hori egin ondoren, neurri efektiboen programa bat egin eta onestea. Neurri horiek gaur egun azterketa medikoak egiteko dauden itxaronaldiak gutxitu egingen lirateke.

c) Azterketa medikoetarako gehieneko itxaronaldiei buruzko araudi bat planteatzea edota egitea, edo erreferentziako irizpide orokor batzuk –protokoloetan jasoak eta argitaratuak; esate baterako Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Gobernuaren webgunean– ezartzea espezialitate mediko bakoitzerako, nahiz eta kasu guzti-guztietan haiek betetzeko betebeharririk ez izan.

Alde batera uzten dugu arau orokor bat egiteko aukera, zeren eta azterketa medikoak egiteko premia eta haiek egiteko denborak edo epeak espezialitate bakoitzaren arabekoak baitira, eta espezialitate bakoitzaren barruan ere, gaixo bakoitzak dauzkan patologien arabekoak eta gaixoaren egoera psiko-fisiko eta emotibo zehatzaren arabekoak. Nolanahi ere, irizpide medikoa nagusituko da, eta irizpide hori beti kasuan kasukoa izanen da. Laburbilduz, azterketa medikoetan gertatzen den kasuistika dela eta, ez da gomendatzen erregulazio orokor abstraktu bat egitea.

Nolanahi ere, komenigarria litzateke itxaronaldietarako epe edo erreferentziako gehieneko denbora horiek Nafarroako Gobernuaren webgunean eta osasun etxeetan argitaratutako protokoloetan jasotzea, espezialitate eta gaixotasunen arabera, berraztertze modukoak izanen diren irizpide medikoen arabera. Betiere, gaixoaren interes klinikoa nagusituko da antolamenduzko interesen gainetik.

d) Osasun etxeen jarduketetan diligentzia ahal den guztian areagotzea, osasunaren babes integrala bermatzeko antolamenduzko neurri egokien bitartez eta behar diren aurrekontu-doikuntzen bitartez, azterketa-kontsultetan gaixoei arrazoizko itxaronaldi batzuk bermatzeko, saihestezina den malgutasun baten barruan. Itxaroteko epe horiek, orokorrean, ez lukete laurogeita hamar eguneko muga gainditu beharko.

e) Itxaronaldiak gaixoei osasun-egoeraren oke-rragotzea dakarkien kasuetan, Osasun laguntza Espezializatuaren arloko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean jasotako edukiari jarraituz, sendagileei gogorarazi beharko litzaieke inguruabar hori nabarmenarazi beharko dutela azterketa-kontsultarako data finkatzen duenean. Eta sendagilearen agindu horren arabera, itxaron zerrenden sistema formalizatu bat ezartzea, guztientzat eskuragarria, lehen kontsultaren zain zauden gaixoentzat ezarrita dagoenaren antzekoa eta gehieneko itxaronaldietarako berme berdinekin eta tratamendu-aukera berdinekin.

## **Nafarroako Arartekoaren eta Espainiako Arartekoaren arteko erakunde-harremanari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Jasotzat ematea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeak egindako txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren eta Espainiako Arartekoaren arteko erakunde-harremanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Nafarroako Arartekoaren eta Espainiako Arartekoaren arteko erakunde-harremanari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (14. or.).
- II.** Erreferentziako lege-esparrua (14. or.).
- III.** Nafarroako Arartekoak Espainiako Arartekoari igorritako kexak (16. or.).
  - 3.1. Kexa-kopurua eta gaien araberako nahiz ukitutako administrazioaren araberako sailkapena (16. or.).
  - 3.2. Kexen edukia (17. or.).
  - 3.3. Kexen izapidetzea (20. or.).
- IV.** Nafarroako Arartekoak ofizioz gauzatu eta Espainiako Arartekoari igorri dizkion jarduketak (20. or.).
- V.** Espainiako Arartekoak Estatuko administrazioari buruz emandako gomendioak eta iradokizunak (22. or.).
- VI.** Espainiako Arartekoak Nafarroako administrazio publikoen gainean eginiko ikuskatzea (26. or.).
  - 6.1. Nafarroari buruz jasotako kexak (26. or.).
  - 6.2. Nafarroako administrazio publikoen aurrean eginiko ofiziozko jarduketak (27. or.).
  - 6.3. Nafarroak administrazio publikoek eginiko ikerketak (28. or.).
  - 6.4. Nafarroako administrazio publikoei bana-bana zuzendutako gomendioak eta iradokizunak (29. or.).
- VII.** Ondorioak (29. or.).

**I. SARRERA.**

Administrazio publikoen aurrean herritarrek dauzkaten eskubideak babestearen ardura duten erakundeen arteko lankidetzaren funtsezkoa da, bai administrazio horiek Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren menpean egoteari buruzko konstituzio-printzipioak bermatzeko, bai interes orokorrari zerbitzu hobea emate aldera haiek dauzkaten eginkizunetan eraginkortasuna lortzeko.

Elkarrekiko lankidetzaren irimo errotuta dago Espainiako Arartekoaren eta Nafarroako Arartekoaren artean dauden harremanetan. Izan ere, bi erakundeek, beren eginkizunetan eraginkortasuna eta efizientzia lortze aldera, elkarri laguntzeko eta elkarrekin leial izateko harremana badaukate.

Txosten honen helburua da Nafarroako Parlamentuari datu zehatzak ematea bi erakunde horietako bakoitzak, bere eskumenen esparruan, garatzen duen jarduerari buruz, bai eta bien artean dagoen lankidetzari buruz ere, Nafarroako Parlamentuak ezagut ditzan Nafarroako herritarrek zein arazo planteatzen dizkieten Espainiako Arartekoari, administrazio publikoekiko harremanei buruz –direla Nafarroako administrazio publikoak, direla beste administrazio publiko batzuk, gehienetan gertatzen den bezala–.

Egiturari dagokionez, txostenak zazpi atal dauzka:

- Lehenengo atalean, aplikatzekoa den arauen esparrua deskribatzen da (II. kapitulua).
- Bigarrenean, Nafarroako Arartekoak Espainiako Arartekoari igorritako kexei buruzko datuak ematen ditugu (III. kapitulua).
- Hirugarrenean, Nafarroako Arartekoak zabalduetako ofiziozko jarduketak islatzen dira, Espainiako Arartekoari igorri zaizkionak (IV. kapitulua).
- Laugarrenean, Nafarroako Arartekoak igorri dizkion kexak direla-eta Espainiako Arartekoak emaniko gomendioak eta iradokizunak zehazten dira (V. kapitulua).
- Bosgarrenean, Espainiako Arartekoak, Nafarroako administrazio publikoak ikuskatzeari dagokionez, 2007tik 2010era izan duen jarduerari buruzko informazioa ematen da (IV. kapitulua).
- Azkenekoan, eginiko azterketaren ondorioak ematen dira (VII. kapitulua).

**II. ERREFERENTZIAKO LEGE-ESPARRUA.**

Espainiako Konstituzioko 54. artikulua araber, Herri Defendatzailea edo Arartekoa Gorte

Nagusietako komisionatu edo ordezkari gorena da, gorte horiek izendatua I. tituluan aitortutako eskubideak defendatzeko; horretarako, Administrazioaren jarduna gainbegiratu ahal izanen du, Gorte Nagusiei kontu-arrazoak emanez.

Apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren bitartez, Herri Defendatzailearen edo Arartekoaren erakundea sortu zen. Arartekoa sortzeari buruzko lege organikoak berak jaso zuen autonomia erkidegoetan antzeko organoak egoteko aukera zegoela, eta 12. artikuluan adierazi zuen, gainera, “autonomia erkidegoetako antzeko organo horiek beren eginkizunak Arartekoarekin koordinatuko zituztela, eta azken horrek haien lankidetzaren eskatu ahalko zuela”.

Gainera, azaroaren 6ko 36/1985 Legearen bitartez, Arartekoaren eta autonomia erkidegoetako antzeko figuren arteko harremanak arautu ziren.

Bigarren lege horren aitzinsolasean aitortzen da ezen, autonomia erkidegoetako berezko erakundeak garatzeko prozesuan, garrantzi berezia duela arautzea Arartekoaren –erakunde hori Konstituzioko 54. artikuluan ezarri zen (artículo 54 de la Constitución– eta autonomia estatutuetan edo autonomia erkidegoek kasuan kasu onetsitako legeetan aurreikusitako antzeko figuren arteko harremanen sistema, kontuan izanda azken horien oinarriko xedea eta xede komuna dela Konstituzioko I. tituluan (Título I de la Constitución) ezarritako eskubideak eta askatasunak defendatzea, eta ahalmena daukatela Administrazio Publikoaren jarduketan autonomia erkidego bakoitzaren esparruan ikuskatzeko.

Nafarroan, Nafarroako Arartekoaren erakundea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen bitartez sortu zen.

Foru lege horren 1.1 artikulua araber, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, eta Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubideak eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko hautatuko du Nafarroako Parlamentuak. Herritarrak Administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea izanen du eginkizun nagusi.

Bestalde, berriki, urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoaren bitartez, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatu da.

Lege organiko horren zioen azalpenak honako dio: "13/1982 Lege Organikoa aldatzeak eta eguneratzeak dakar testu indarduna errealtate juridiko eta politiko berrira alderdi hauetan egokitzea, ia hiru hamarkadaz indarrean egon ostean, eta Nafarroako Foru Komunitateko erakundeei dagokienez (I. titulua), Foruaren Hobekuntzaren 10. artikuluan Nafarroako foru erakundetzat hartutako hiru foru erakundeen arauketa egokitu da (bereziki Nafarroako Parlamentuarena eta Nafarroako Gobernuako lehendakariarena; hori Foru Komunitateko lehendakari izatera pasatuko da), eta testu horretan espresuki aipatuko dira Nafarroako Arartekoa eta Nafarroako Kontseilua, beren maila, garrantzia eta eginkizunak direla-eta, bertan agertu behar dutela uste baita."

Aurrekoaren ondorioz, Lege Organikoak 7/2010 18. ter artikulua gehitzen dio Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoari, honako testuarekin:

"18. ter artikulua.

1. Nafarroako Arartekoak Nafarroako Parlamentuaren mendeko organo gisa jardunen du eta, Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoaren eskumena galarazi gabe, Konstituzioak eta lege organiko honek babestutako eskubideak eta askatasunak defendatu eta babesteko eginkizuna izanen du, Foru Komunitatearen eskumen eremuan. Horretarako, Nafarroako administrazio publikoen jarduna gainbegiratu ahal izanen du, eta horren berri emanen dio Parlamentuari.

2. Foru lege batek arautuko ditu Nafarroako Arartekoaren hautaketa, eskudantziak, araubide juridikoa eta funtzionamendua."

Nafarroako Arartekoaren ikuskatze-lanaren esparru subjektiboari dagokionez, ulertzen da esparru hori Nafarroako administrazio publikoetara zabaltzen dela, eta, horrenbestez, Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legeko 1.3 artikulua arabera, honakoak hartzen dituela:

1. Foru Komunitateko Administrazioa, haren erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta haren menpeko gainerako ente publikoak.

2. Nafarroako toki entitateak, haien erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta haien menpeko gainerako ente publikoak.

3. Parlamentuaren administrazioa.

4. Nafarroako Parlamentuak sortutako erakundeen jarduketa administrazioa.

5. Halaber, administrazio kontzesio bidez pertsona fisiko edo juridikoak kudeatutako zerbitzuak ere begiratu ahalko ditu eta, oro har, edozein era-

kunde edo entitate, pertsona juridiko edo pribatu, baldin eta zerbitzu publiko batean diharduela, nolabaiteko administrazio kontrol edo tutoretza egiten badiote, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak Nafarroako Foru Komunitateari eskumenak ematen dizkion gai orotan.

Bere aldetik, Espainiako Arartekoak bere ikuskatze-jarduera administrazio publiko guztietara hedatzen du, horren barne direla, beraz, autonomia erkidegoetako eta toki entitateetako administrazioak eta, horrenbestez, Nafarroako administrazio publikoak.

Izan ere, Nafarroako Arartekoaren eskumenak eta Espainiako Arartekoaren eskumenak bat datoz Nafarroako administrazio publikoak ikuskatzeari dagokionez, eta horrek aukera ematen die Nafarroako herritarrei parlamentu-erakunde batera zein bestera jo ahal izateko. Alabaina, txosten honetan jasotako datuek agertzerik emanen duten bezala, herritar horiek, oro har, Nafarroako Parlamentuak izendatutako Arartekoarengana jotzen dute beren eskubide eta askatasunak babes ditzan eta Foru Administrazioaren, Nafarroako Toki Administrazioaren eta Nafarroako korporazio eta erakundeek osatzen duten administrazioaren abusu eta akatsetatik defenda ditzan.

Jada adierazi dudan bezala, bi parlamentu-erakundeak autonomoak eta independenteak dira beren eginkizunetan, eta haien arteko harremanaren buruan konstituzio-leialtasuna, lankidetzaren eta elkarrekiko laguntza ageri dira.

Elkarrekiko laguntzaren kasu berariazko bat Estatuko Administrazioaren eta haren organo periferikoen ikuskatzea da, zeina Espainiako Arartekoaren eskuetan uzten baita. Halakoetan, elkarrekiko laguntzaren eta lankidetzaren printzipioa honela gauzatzen da: Nafarroako Arartekoak Espainiako Arartekoari igortzen dizkio Estatuko Administrazio Orokorreko organoen jarduketari buruz jasotzen dituen kexak, eta azken horrek kexa horiek jaso izatearen berri ematen dio Nafarroako Arartekoari eta, ondoren, kexa izapidetzearen emaitzak ere jakinarazten dizkio.

Arestian aipatu dugun Gorte Nagusietako Arartekoaren eta autonomia erkidegoetako antzeko figuren arteko harremanak arautzen dituen azararen 6ko 36/1985 Legeko 1.2 c) artikulua, gainera, ahalmena ematen dio Nafarroako Arartekoari Espainiako Arartekoarengana jotzeko, baldin eta Estatuko Administrazio Orokorrearen jarduketan arau-hausterik edo irregulartasunik hautematen badu.

Bestalde, 36/1985 Legeko 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Espainiako Arartekoak Nafarroako Arartekoaren laguntza eskatu ahalko du azken horrek Estatuko Administrazio Publikoaren organoen jarduketa ikuska dezan.

Elkarrekiko laguntzarako eta lankidetzarako bide horien guztien bitartez, bi erakundeek beren ikuskatze-eginkizunak eta eskubideak eta askatasunak defendatzeko beren egitekoa osotasunez eta eraginkortasunez betetzen dituzte, eta praktikan bataren zein bestearen eginkizunak betetzera-koan ez da inongo gainjarpenik gertatzen.

Nolanahi ere, komeni da gogoraraztea bi erakundeak ez direla hertsiki korrelatiboak, eta haiek arteko ezberdintasunak direla-eta modu desberdinetara jarduten dutela eta emaitza desberdinak ere lortzen dituztela.

Nafarroako Arartekoak eginkizun gisa ditu herritarren konstituzio-eskubideak defendatzea, LORAFNAk nafarrei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea eta Nafarroako Foru Komunitateko legeek herritarrei esleitzen dizkieten eskubideak babestea, bai eta bestelako eginkizun proaktiboak ere, herritarren eskubideen maila hobetzera zuzendutakoak zein Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek eta Nafarroako Foru Komunitateko edozein erakunde publikok ematen dituzten zerbitzu publikoak hobetzera bideratutakoak. Halaber, Nafarroako Arartekoaren eginkizunek ahalmena ematen diote partikularren interes legitimoen eta Administrazioaren interes orokorraren artean bitartekari edo artekari lanak egiteko eta bi interes-arlo horiek uztartzeko. Horrenbestez, herritarren eta Administrazioaren artekari (Ararteko) gisa jarduten du edo jardun dezake. Halaber, informazioa ematen die herritarrei Nafarroako administrazio publikoen aurrean dauzkaten eskubideei buruz, eta jasotzen ditu herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko aurkeztzen

dituzten proposamenak, hartara herritarren partaidetzarako bitarteko gisa ere jardunez. Halaber, foru parlamentariei, Nafarroako parlamentuari eta beste entitate batzuei informazioa ematen die –hala eskatzen badiote– haien eskumeneko gaiak buruz.

Bere aldetik, Espainiako Arartekoa, konstituzio-eskubideak defendatzeko eginkizuna edukitzeaz gainera, legitimaturik dago konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioak eta babes-errekurtsioak aurkezteko, bai eta “Torturaren eta Tratu Txarren Prebentzioarako Mekanismo Nazionala” deitutakoaren eginkizunak betetzeko ere. Espainiako Konstituzio-ko I. tituluan jasotako eskubideak defendatzeko eginkizuna betetze aldera, administrazio publiko guztien jarduera ikuska dezake, eta ikuskapen horren berri Gorte Nagusiei emanen die.

### **III. NAFARROAKO ARARTEKOAK ESPAINIAKO ARARTEKOARI IGORRITAKO KEXAK.**

#### **3.1. KEXA-KOPURUA ETA GAIEN ARABERAKO NAHIZ UKITUTAKO ADMINISTRAZIOAREN ARABERAKO SAILKAPENA.**

Nafarroako Arartekoaren erakundea sortu zenetik –2000an sortu zen– 2011ko ekainaren 30era arte, erakunde horrek 559 kexa igorri dizkio Espainiako Arartekoari. Kexa horiek Nafarroako Arartekoak epe horretan jasotako kexa guztien % 9,85 egiten dute, guztira 5.678 kexa jaso baititu.

Kexa horiek igorri dira, kasu guzti-guztietan, haietan aztertu beharreko gaia Espainiako Arartekoaren eskumenen artean ezarritako gai bat zelako, eta, horrenbestez, Nafarroako Arartekoaren ikuskatze- edo eskumen-esparrua gainditzen zutelako.

Espainiako Arartekoari igorritako kexetan agertu diren gaiak honakoak izan dira:



Kexak, gaiaren arabera	Kexa kopurua	%
Barne arloa	107	% 19,14
Gizarte Segurantzza	98	% 17,53
Trafikoa	57	% 10,2
Justizia	50	% 8,94
Atzerritarrak	49	% 8,77
Zerbitzu publikoak	36	% 6,44
Funtzio Publikoa	28	% 5,01
Lana	26	% 4,65
Hezkuntza eta irakaskuntza	20	% 3,58
Gizarte ongizatea	18	% 3,22
Ogasuna	17	% 3,04
Herritarren bermeak, administrazio publikoekiko beren harremanetan	15	% 2,68
Elebitasuna	8	% 1,43
Osasuna	6	% 1,07
Etxebizitza	6	% 1,07
Ingurumena	5	% 0,89
Nekazaritza	5	% 0,89
Herri lanak	4	% 0,72
Hirgintza	2	% 0,36
Askotarikoak (juridiko pribatuak)	1	% 0,18
Industria	1	% 0,18
<b>Guztira</b>	<b>559</b>	<b>% 100,00</b>

### 3.2. KEXEN EDUKIA.

Ondoren, laburbildurik zehazten dugu Nafarroako Arartekoari aurkeztu ondoren Nafarroako Espainiako Arartekoari igorri zaizkien kexen edukia, kexen sailkapenean ageri diren gaien hurrenkera alfabetikoaren arabera.

#### 3.2.1. Nekazaritza.

Arlo honetan, 5 kexa igorri dira. Igorritako kexa guztien ehuneko 0,89 egiten dute, guztira.

Herritarrek azaldutako arazoak, nagusiki, zerkusia izan dute kexa-egileak ados ez egotearekin ureztatzaileen sindikatuek eta ureztatzaileen elkar-teez izandako jokabidea dela-eta (bereziki, gastuen banaketa gauzatzeko eginiko likidazioekin ados ez egoteko kasuak izan dira).

#### 3.2.2. Gizarte ongizatea.

18 kexa igorri zaizkio Espainiako Arartekoari. Kexa guztien ehuneko 3,22 egiten dute.

Horietan honakoekin lotutako gaiak planteatu dira:

– Adineko pertsonen arreta eta babesa, eta, bereziki, kotizazio gabeko pentsio batzuk nahikoak ez izatea.

– Adingabeen babesa. Esate baterako, Espainiako lurraldean egoteko baimenik ez ematea adin-

gabe atzerritarrei, edo familia batzuk ados ez egotea familia-topaguneen kudeaketarekin.

– Ezgaitasunen aitortpena ukatzea.

– Familia eta lana bateragarri egiteko neurri batzuk nahikoak ez izatea.

– Indarkeriazko delituen biktimak babesteko eta sexu-askatasunaren aurka ezarritako neurriak nahikoak ez izatea.

#### 3.2.3. Hezkuntza eta irakaskuntza.

Arlo honetan, 20 kexa igorri zaizkio Espainiako Arartekoari. Kexa guztien ehuneko 3,58 egiten dute.

Kexa gehienak titulu akademikoak lortzeko, emateko eta homologatzeko baldintzei buruzkoak dira. Honakoei buruzko kexak ere igorri dira:

– Iruñeko eta Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak eginiko proba akademiko-koen egitura.

– Proba horien ondorioz emaniko kalifikazioak.

– Hezkuntza Ministerioak ikasteko bekak ukatzea.

#### 3.2.4. Euskara.

8 kexa igorri dira. Guztien ehuneko 1,43 egiten dute.

Honakoei buruzkoak izan dira:

– Desadostasuna nortasun agiri nazionala gaztelania hutsez ematearekin.

– Erregistro Zibileko ziurtagiriak ere gaztelania hutsez ematea.

– Iruñeko aireportuko errotulazioa gaztelania hutsez egotea.

– Eremu euskalduneko langileei euskaraz ez ematea Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren dokumentazioa.

### **3.2.5. Atzerritarrak.**

49 izan dira arlo honetan igorritako kexak. Guztien ehuneko 8,77 egiten dute.

Kexak honako arrazoiei buruzkoak izan dira, nagusiki:

– Estatuko Administrazioako organo periferikoak egoitza- eta lan-baimenak izapidetzen eta berri-zen geroratzea.

– Espainiako enbaxadek bisatuak ukatzea (egonaldia, familia birbiltzea, ikasleak).

– Familia birbiltzeko eskariak ukatzea.

– Zenbait kasutan, zailtasunak egotea Espainiako naziotasuna lortzeko izapideak egiteko.

### **3.2.6. Funtzio publikoa.**

Arlo honetan, 28 kexa igorri dira. Guztien ehuneko 5,01 egiten dute.

Ondokoa izan da kexen edukia:

– Ados ez egotea Estatuko Administrazio Orokorreko organoek deitutako hautapen prozesuekin: desadostasuna deialdietako oinarriekin; ados ez egotea hautapen-organoen emandako kalifikazioekin; azterketak berrikusteko eskariei ez erantzutea...

– Desadostasuna Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzuko langileen ordainsariak aitortzearen eta ordaintzearen arloetan.

– Nafarroako administrazio publikoek eta Gizarte Segurantzak bata bestearen kotizazioen kontaketa ez egitea.

– Ados ez egotea Estatuko Administrazio Orokorren administrazio horretako funtzionarioen eskubide eta betebeharrak batzuk direla-eta eginiko interpretazioarekin.

### **3.2.7. Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.**

Arlo honetan, 15 kexa igorri dira. Guztien ehuneko 2,68 egiten dute.

Kexa horietan salatu da Estatuko Administrazio Orokorreko organoek (kontsul-etxeak, Estatuko Gobernuak autonomia erkidegoetan dauzkan ordezkariak, ministerioak, Auzitegi Ekonomiko-Administratibo Zentrala eta abar) ez dituztela herritarren eskubide batzuk betetzen: administrazio publikoen erantzun espresa jasotzeko eskubidea; informazioarekin eskubidea; herritarren parte-hartzerako eskubidea, eta langile publikoengandik behar bezalako arreta jasotzeko eskubidea.

### **3.2.8. Ogasuna.**

Arlo honetan, 17 kexa igorri dira. Guztien ehuneko 3,04 egiten dute.

Kexen edukia, neurri handi batean, Estatuko Zerga Agentziak eginiko zergen kudeaketarekin eta likidazioarekin ados ez egoteari buruzkoak izan dira.

### **3.2.9. Industria.**

Arlo honetan, kexa bakarra igorri zaio Espainiako Arartekoari. Kexa horren edukia heldu da Nafarroako ekoizle fotovoltaiakoak ados ez egotetik Espainiako energia fotovoltaiakoko ekoizleentzat aurrekusi den lege-araubidearekin. Eskatzen dute araudi hori deusezta dadila edo haren aurkako errekurtsoa aurkez dadila Konstituzio Auzitegian.

### **3.2.10. Barne arloa.**

Arlo honetan, 107 kexa igorri dira. Guztizkoaren ehuneko 19,14 egiten dute. Kexen kopuruari erreparatuta, lehenengo gaia da.

Gai horren barrenean:

– 53 kexa aurkeztu dira espetxe-administrazioa dela eta.

– Herritarrek 30 kexa aurkeztu zituzten polizien jarduketekin ados ez egoteari buruz.

– 10 kexa izaera administratiboko izapideak egiteko zailtasunei buruzkoak edo haietan gertatutako geroratzeei buruzkoak izan dira.

– 4 kexa herritarren segurtasunaren arlokoak izan dira.

– 10 kexen kasuan, beste gai batzuk aztertu dira.

### **3.2.11. Justizia.**

Arlo honetan, 50 kexa igorri dira. Guztien ehuneko 8,94 egiten dute.

Kexa gehienak Justizia Ministerioaren menpeko erregistroen funtzionamenduari buruzkoak izan dira; gehienak egintzak erregistro zibiletan inskribatzean izandako geroratzeengatik edo inskripzioak egiteari ezezkoa emateagatik.

Halaber, zenbait kexa aurkeztu dira herritarrak erabaki judizialekin ados ez egoteari buruz, bai eta epaiak betetzerakoan eta prozesu judizialak izapidetzerakoan gertatutako geroratzei buruz ere.

### 3.2.12. Ingurumena.

Arlo honetan, 5 kexa igorri dira. Guztien ehuneko 0,89 egiten dute.

Honakoa izan da kexa horien edukia:

- Zaratek eragindako eragozpenak.
- Ingurumena babesten neurri bat edo neurri batzuk hartu behar izatea, honako gaiak direla eta, zehazki:

- Ados ez egotea Izarbeibarko industrialdeko guztiz araztu gabeko urak Sakagorri errekararen etorkizunean isurtzearekin.
- Nafarroako Errege Bardeatik heldu den erreka bateko drainatze-ubidea ez garbitzea.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ez erantzutea ingurumen-elkarte batek aurkeztutako azterlan bati. Azterlana Arga ibaiaren egoerari buruzkoa da, ekoizpen hidroelektrikoko bi presen eraikuntza dela-eta.

### 3.2.13. Herri Lanak.

Arlo honetan, 4 kexa igorri zaizkio Espainiako Arartekoari. Kexa guztien ehuneko 0,72 egiten dute.

Kexa horietan desadostasun batzuk planteatu dira Estatuko Administrazio Orokorrek azpiegitura eta ekipamendu publiko batzuk exekutatzearen ondorioz. Honakoak, zehazki: Itoizko urtegia betetzea (2 kexa); abiadura handiko trenak Beriaindik iragaten duen tartean izanzen duen trazadura; eta Iruñeko espetxea eraikitzen ari zen orubearekin mugakideak diren etxebizitza batzuetan gertatutako kalteak (pitzadurak).

### 3.2.14. Osasuna.

Arlo honetan, 6 kexa igorri zaizkio Espainiako Arartekoari. Guztien ehuneko 1,07 egiten dute.

Honakoei buruzkoak izan dira kexa nagusiak:

- Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorrek ezezkoa ematea osasun-laguntzako gastuak itzultzeari.
- Osasun Sistema Nazionalak sendagai batzuk ez finantzatzea.

### 3.2.15. Gizarte Segurantza.

98 izan dira Gizarte Segurantzari buruzko kexak. Kexa horiek guztizkoaren % 17,53 egiten dute.

Kexa horietan, honako gaiak planteatu dira: pentsio batzuk emateko garaian gertatutako geroratzeak; pentsio horiek ukatzearekin ados ez egotea; ezgaitasunak aitortzeko prozesuetan gertatutako desadostasunak; eta langileen kolektibo batzuen kotizazio-araubidearekin gertatutako desadostasunak (bereziki, etxeko langileen araubide bereziaren kasuan).

### 3.2.16. Zerbitzu publikoak.

Arlo honetan, 36 kexa igorri dira. Guztien ehuneko 6,44 egiten dute.

Kexak zerbitzu publikoak emateari buruzkoak izan dira; bereziki, zerbitzu horiek ematerakoan gertaturiko gorabeherari buruzkoak (nagusiki, posta zerbitzuaren kasuan).

Halaber, zenbait desadostasun azaldu dira telefonia zerbitzuen erregulazioarengatik, Nafarroako Foru Komunitateko banda zabalaren azpiegiturarengatik edo elektrizitate tarifek gora egiteagatik.

### 3.2.17. Lana.

Arlo honetan, 26 kexa aurkeztu dira. Guztira, kexa horiek guztizkoaren % 4,65 egiten dute.

Kexen adierazleak islatzen du zailtasunak daukela langabeziarengatik prestazioa kobratzeko; prestazio hori izapidetzerakoan atzerapenak daukela eta akatsak egiten direla hura kalkulatzekoan. Halaber, zenbait herritarrek azaldu dute ez daudela ados lan ikuskaritzak bere funtzioetan garatutako jarduketekin.

### 3.2.18. Trafikoa.

Arlo honetan, 57 kexa igorri dira. Guztien ehuneko 10,20 egiten dute.

Kexa gehienetan, planteatu da herritarrak ez daudela ados arlo horretan ezarritako zehapenekin, ez eta haiek ezartzeko jarraitutako zehapen prozedurarekin ere.

### 3.2.19. Hirigintza.

2 izan dira aurkeztutako kexak. Kexa horiek ehuneko 0,36 egiten dute guztizkoan.

Haien edukia herritarrek honako gaietan azaldutako desadostasunak izan dira:

- Trenbide bat industrialde batean ezarritako enpresa baten bazter gune batekin lotzeko obraren exekuzioa.

- Administrazioak ezer ez egitea kexa-egilearen jabetzarekin mugakidea den finka batetik heldu diren filtrazioen aurrean, estoldak egiteko obrak behar den baimena eduki gabe egin ondoren.

### 3.2.20. Etxebizitza

Arlo honetan, 6 kexa igorri zaizkio Espainiako Arartekoari. Guztira, igorritako kexen ehuneko 1,07 izan dira.

Gehienetan, gazteen emantzipaziorako oinarritzko errenta ordaintzerakoan gertatutako geroratzeei buruzkoak izan dira. Kasuren batean, laguntza hori itzultzeko egindako errekerimenduarekin ados ez egoteari buruzko kexak izan dira.

### 3.3. KEXEN IZAPIDETZEA.

Espainiako ordezkariari igortzen zaizkion kexen espedienteen izapidetzea prozedura arin batez gauzatzen da, herritarrari oztoporik batere jarri gabe.

Hartara, Estatuko Administrazioaren edo haren organo periferikoen funtzionamenduari buruzko kexaren bat jasotzen denean, ahal den bezain laster igortzen zaio Espainiako Arartekoari, eta hark hura jaso izatearen berri ematen du, eta gure erakundeari informazioa igortzen dio kexa onartu izateari ala ez onartu izateari buruz; eta kexa onartzen badu, behar den ikerketa-espedientea abiatu izateari buruzko informazioa ematen dio.

Behar den ikerketa egin ondoren, Estatuko Arartekoak kexa-egileari bere jarduketaren emaitzaren berri ematen dio, eta Nafarroako Arartekoari eginiko jarduketaren kopia igortzen dio.

Prozedura hori, bi erakundeek jada finkatuta dutena, sistema eraginkorra da Nafarroako Arartekoak bideratzeko Estatuko Administrazioaren funtzionamenduari buruz herritarrek aurkezten dizkion kexak. Herritarrek hala eskatzen duten kasuetan, herritar horiek Estatuko Arartekoak izapidetu behar duen prozesurako aurkeztu nahi dituzten informazioak eta dokumentazioa Nafarroako Arartekoak jasotzen ditu, eta azken honek Gorte Nagusietako Arartekoari igortzen dizkio, espedientearen sar ditzan.

Esan dugun bezala, prozedura horri jarraituz, Nafarroako Arartekoak 559 kexa igorri dizkio guztira, foru erakundeak lanean eman dituen hamar urteetan, Espainiako Arartekoari.

Kasuen ehuneko 48,30ean, Arartekoak zuzenean erantzun zion kexa aurkeztutako pertsonari, eta horrekin, amaiera eman zien bere jarduketei, inongo irregulartasunik ez atzemateagatik edo ulertzeagatik kexa onartzea ez zela bidezkoa, legez ezarritako arrazoiengatik (270 kexa). Bestalde, kexen ehuneko 47,58an, Arartekoak kexak izapidetzen jarraitu zuen, eta Administrazio Publiko eskudunarengana jo zuen informazioa eskatzeko eta, kasua bazen, ikerketa egiteko (266 kexa).

Onartutako kexak aztertu eta analizatu ondoren, Estatuko Arartekoak, hamaika kasutan, egokitzat jo du ikuskatutako administrazio publikoei gomendioak eta iradokizunak egitea. 82 kasutan (izapidetzeko onartutako kexen % 35), berriz, inongo gomendio edo iradokizunik egin gabe ebatzi da gaia.

Gainerako gaiak, izapidetzeko onartu direnen kopurua osatu artekoak, ikertzen ari dira.

Ikuskatutako Administrazio Publikoak bost kasutan erakundearen erabakia onartu du. Beste lau kasutan, Administrazioak ez ditu onartu egin zaizkion iradokizun edo gomendioak. Gainerako bi kasuetan erantzuna oraindik ere eman gabe dago.

## IV. NAFARROAKO ARARTEKOAK OFIZIOZ GAUZATU ETA ESPAINIAKO ARARTEKOARI IGORRI DIZKION JARDUKETAK.

Halaber, Nafarroako Arartekoak, ofiziozko zenbait ikerketa irekitzearen kariatara, Espainiako Arartekoarengana jo du, Estatuko Administrazioaren organo eta entitateen funtzionamenduan antzemandako akatsak azaltzeko edo Estatuko eskumeneko arauetan egin litezkeen hobekuntza batzuk helarazteko. Nafarroako Arartekoaren eta Espainiako Arartekoaren arteko laguntzazko eta lankidetzazko harremanen esparruan egin du hori, honako arauen babesean: batetik, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 39. artikuluan ezarritakoaren babesean, eta, bestetik, Gorte Nagusietako Arartekoaren eta autonomia erkidegoetako antzeko figuren arteko harremanak arautzen dituen azaroaren 6ko 36/1985 Legeko 1.2 c) artikuluan ezarritakoaren babesean.

Kasu batzuetan, jarduketa zehatzak dira; beste batzuetan, berriz, arazo orokorrak, bi erakundeen jarduketaren xede direla jotzen direnak.

2007tik 2011ra, Nafarroako Arartekoak ofiziozko zazpi jarduketa igorri dizkio Estatuko bere izen-kideari:

1. Benidormeko Udaltzaingoko kideek Nafarroako herritar bati ustezko tratua desegokia ematea.

Nafarroako Arartekoak azaldu zuen Nafarroako herritar batek ezinegonatu zuela zeren eta, haren adierazpenen arabera, Benidormeko Udaltzaingoko kideen eskutik tratamendu intolerantea eta ezin toleratzen zena, xenofobiaren muga-mugan, jasan baitzuen.

Estatuko Arartekoak egitatei buruzko ikerketa bat egin zuen. Haren ondotik, espedientea itxi zuen, salatutako egitatei buruzko frogarik ez zegoelako.

**2.** Langabeziarengatiko prestazioak ez ordainitzea, Nafarroako Enpleguaren Institutu Nazionalean espedienteak pilatzearen ondorioz.

Nafarroako Arartekoak 2009ko abuztuan eza-gutu zituen Nafarroako Enpleguaren Institutu Nazionalean nolako zailtasunak zeuden langabeziarengatiko prestazioen ordainketa kudeatzeko, espedienteak pilatuta egotearen ondorioz. Izan ere, institutu hori espediente horiek ezin ebatzi zebilen, langileen plantilla txikiegia izatearen ondorioz. Bada, horren kariatara, Espainiako Arartekoarengana jo zuen, eta hark, bere aldetik, informazioa eskatu zin Estatuko Zerbitzu Publikoaren Nafarroako Zuzendaritza Probintzialari.

Estatuko Zerbitzu Publikoaren Nafarroako Zuzendaritza Probintzialak jakitera eman zuen plan bat bultzatzen ari zela langabeziaren ondoriozko eta gizarteratzerako aldi baterako babes programak lan-zamak areagotu izatearen ondorioei aurre egiteko.

**3.** Tuteran zigor arloko epaitegi bat jartzeko eskaria.

Ofiziozko jarduketa hori heldu zen, Nafarroako Gobernuak adierazpenen arabera, Tuterako Abokatuen Elkargoa eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakaria ados ez egotetik Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrak eginiko txosten batekin. Izan ere, txosten hori Tuterako zigor arloko epaitegi bat jartzearen aurkakoa zen, eta auziak Iruñeko epaitegian zentralizatzearen aldekoa.

Nafarroako Arartekoaren erakundeak azaldu zien, batetik, Botere Judizialeko Kontseiluko lehendakariari eta, bestetik, Espainiako Arartekoari, Tuteran zigor arloko epaitegi bat jartzeko modurik bazegoela.

Estatuko Arartekoak Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari gaiari buruzko txostena eskatu zion, eta hark jakitera eman zion Iruñean zigor arloko epaitegi bat jartzeko erabakia honakoetan oinarrituta zegoela: botere judizialeko zerbitzu teknikoek eginiko txostenak, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretoaren aldeko txostena eta Botere Judizialeko Ikuskapen Zerbitzuaren txostena.

**4.** Nafarroako zenbait udalek eta Nafarroako Parlamentuak adierazitako errefusa, Posta Zerbitzuak eginiko proposamena dela eta –hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitatean hiriguneetatik urrun dauden auzo eta etxebizitzetarako postontzi partekatuak jartzeari buruzko proposamena–.

Nafarroako Arartekoak Estatuko Arartekoari esku hartzeko proposamen bat helarazi zion,

zeren eta Posta eta Telegrafoen Estatu-sozietateak proposamena egin baitzuen Nafarroako iparralde herri batzuetan, hiriguneetatik urrun dauden auzo eta etxebizitzetarako postontzi partekatuak jartzeari buruz.

Eskariaren oinarria Nafarroako ipar-mendebaldeko hamabi udal proposamen horren aurka azaldu izana zen. Bestalde, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen Estatuko Gobernuarekiko beharrezkoak ziren zuzemenak egin zitzaizkion, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean zegoen eremuetatik kentzea galarazte aldera.

Espainiako Arartekoak ondorioztatu zuen ofiziozko jarduketa honen xede diren jendegune sakanatuak “ingurune berezizat” jo zitezkeela, Posta zerbitzuak arautzen dituen Erregelamendua onesteko abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 37. artikuluari jarraituz (erregelamendu horrek garatu zuen Posta zerbitzu unibertsalari buruzko eta posta zerbitzuak liberalizatzeko uztailaren 13ko 24/1998 Legean ezarritakoa), eta, horrenbestez, Posta eta Telegrafoen Estatu-sozietatearen proposamena legez ezarritakoaren arabera zela.

**5.** Dei-ezarpenaren kontzeptuarengatik eta ahots-postontziaren zerbitzuarengatik fakturaztea, itzalita, komunikatzen edo estaldurarik gabe dauden sakelako telefonoetara eginiko deietan, ahotsmezua grabatzen ez denean.

Nafarroako Arartekoak jaso izan ditu Nafarroako zenbait herritarrek helarazitako kexak, telefonia-konpainia batzuek, sakelako telefonoak itzalita edo koberturarik gabe dauden bitartean, telefono-zerbitzuak fakturatzeko dituztelako. Hori dela eta, esku hartzeko eskatu zion Espainiako Arartekoari.

Estatuko erakundeak txosten bat egiteko eskatu zion Telekomunikazioetako Estatu Idazkaritzari, egiaztatze aldera ea zerbitzu horiek fakturatzekoan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesari buruzko arauak betetzen ziren.

Erantzunean, Telekomunikazioetako estatu idazkariak adierazi zuen arau horrek ez diela telefoniako enpresei debekatzen ahots-postontzia aktibatzen deneko dei batengatik kobratzea, postontzi horretan mezua uzten den ala ez alde batera utzita. Telekomunikazioetako estatu idazkariak iradoki zuen, halaber, kontsumoaren arloko estatu-agintariek ere kexa aztertu beharko luketela, salatutako praktika abusuzkoa jotzen ote zuten.

Bestalde, Espainiako Arartekoak Nafarroako Arartekoari jakinarazi zion itzalitako edo koberturarik gabeko telefonoetara eginiko deiengatik faktu-

ratzea, ahots-postontzia aktibatuta ez egon arren, abusuzko praktika bat dela hori, jada zuzendu dena.

**6.** Pertsonak derrigor ospitaleratzeari eta haiei derrigorrezko tratamendu medikoa emateari buruzko erregulazio oso eta gaurkotu bat jasoko duen lege organiko bat onesteko beharra.

Nafarroako Arartekoak Espainiako Arartekoari eskatu zion Espainiako Gobernuak premia zezala lege organiko baterako proiektua egiteko, buru-gaixotasunen bat duten pertsonak barneratzeari eta haiei nahitaezko tratamendu mediko-klinikoa emateari buruzko araupetze oso eta gaurkotu bat jasoko duena.

Eskarian azaltzen zenaren arabera, joan den urtearen amaieran, Konstituzio Auzitegiak deklaratu zuen Prozedura Zibileko legearen 763. artikulua zati bat Konstituzioaren aurkakoa zela; izan ere, zati horrek ahalmena ematen dio epaile eskudunari baimena emateko nahaste psikikoak daukaten pertsonak beren borondateaz kontra barneratzeko. Auzitegiaren iritziz, nahitaezko barneratzea norbanakoaren askatasuna kentzea da, eta horrek exijitzen du hari buruzko araupetzea lege organiko bidez egin dadila, oinarritzko eskubide batean eragiten baitu. Jokabide hori Konstituzioaren aurkakoa dela deklaratu bada ere, buru-gaixotasunen bat duten pertsonen nahitaezko barneratzea eragotziko duen hutsune normatiborik gerta ez dadin, Konstituzio Auzitegiak araua indarrean mantendu zuen eta legegilea premiatu zuen ahal bezain laster lege organiko bidez arau zezan nahaste psikikoa dutenen barneratze ez-boluntarioaren neurria.

Konstituzio Auzitegiaren erabaki horren aurrean, Nafarroako Arartekoaren ustez egokia da Espainiako Gobernuak izan dadila, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren bitartez, lege organiko baterako proiektua egin eta Gorte Nagusietan aurkezten duena, hain zuzen ere buru-gaixotasun bat izateagatik tratamendu psikiatriko egokia hartzeko barneratu beharrekoak diren pertsonak establezimendu psikiatrikoetan nahitaez barneratzearen arloa arautzeko.

Hori guztia dela eta, Gorte Nagusietako Arartekoarengana jo zuen eta eskatu zion Espainiako Gobernuak premia zezala lege organikoaren proiektu hori. Proposatutako hartan hiru gai sartu beharko zirela: buru-gaixoen borondatez kontrako tratamendu anbulatorioa; osasun publikoko arazoengatik pertsonak barneratzea eta haiei nahitaez tratamendua ematea; eta gaixotasun-arrazoengatik baztertuta ez izateko oinarritzko eskubidea urra dezaketen gaixotasun infekzioso eta kutsagarriengatik mugatu bozkoak.

Espainiako Arartekoak Justizia Ministeriora jo zuen, eta proposamen hori helarazi zion. Halaber, gaiari buruzko txosten bat eskatu zion. Txosten hau ixteko garaian, oraindik ere ez da gaiari buruzko informaziorik jaso.

**7.** Gazteen emantzipaziorako oinarritzko errenta arautzen duen azaroaren 2ko 1472/2007 Errege Dekretuan aldaketa batzuk sartzeko beharra.

Nafarroako Arartekoak kexa eta kontsulta batzuk jaso izan ditu gazteen emantzipaziorako oinarritzko errenta dela eta. Haien ondorioz, gazteen emantzipaziorako oinarritzko errenta arautzen duen azaroaren 2ko 1472/2007 Errege Dekretua aldatzeko proposamen bat helarazi zion Espainiako Arartekoari.

Arau hori aldatu behar izatearen arrazoiak dira, batetik, laguntzak ordaintzerakoan gertatzen diren geroratzekoak; eta, bestetik, prestazio hori eskuratzeko baldintzak berraztertze beharra.

Espainiako Arartekoa gaia aztertzen hasia da; gaur arte, ordea, ez du lortutako emaitzaren berri eman.

## **V. ESPAINIAKO ARARTEKOAK ESTATUKO ADMINISTRAZIOARI BURUZ EMANDAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK.**

Kexetara itzulita, Nafarroako Arartekoak igorritakoak izapidetu ondoren, Espainiako Arartekoak sei iradokizun, lau gomendio eta legezko betebeharren gogorarazpen bat igorri dizkie ikuskatutako administrazio publikoei.

Hamaika ebazpen horietatik, ikuskatutako Administrazio Publikoak erakundeak erabakitakoak bost aldiz onartu ditu, eta lau aldiz, berriz, errefusatu ditu. Bi ebazpenen kasuan, berriz, erantzuna ematearen zain gaude.

Gainera, beste bost espedientetan, Espainiako Arartekoak kexa-egileei jakinarazi die haiek azaldutako gaiak direla-eta lehendik antzeko edukia duten beste kexa batzuk izapidetu direla, eta kexa horien harira Espainiako Arartekoak ikuskatutako administrazio publikoei gomendioak egin izan dizkiela. Hori dela eta, ez du egokitzat jo gomendio horiek berriz ere egitea.

Honakoak izan dira Espainiako Arartekoak emandako gomendioak, iradokizunak, legezko betebeharren gogorarazpenak eta gomendio orokorrak:

**1.** Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalari (UNED):

Kexan azaltzen den Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UNED) Hezkuntza Iraunkorre-

ko Programetan (Nutrizioa eta Dietetika) ikasteko laguntza bat ukatu duela, 1999/2000 ikasturterako.

Deialdian azaldutakoaren arabera, laguntzaren onuraduna izateko baldintzetako bat zen ekaineko deialdian ikasmaita gairitu izatea. Bada, kexa-egileak baldintza hori betetzen zuen. Alabaina, bere espediente akademikoan, akats baten ondorioz, agertzen zen ikasmaita iraileko deialdian gairitu zuela. Inguruabar horren ondorioz beka ukatu zioten.

Behar zen izapidetza egin ondoren, Espainiako Arartekoak legezko betebeharren gogorarazpen bat egin zion Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalako errektoreari, unibertsitate horrek bete ditzan eta betearaz ditzan unibertsitate horretan ematen diren hezkuntza iraunkorreko ikasketei buruz dauden arauak, eta, bereziki, Gobernu Batzarrak 2000ko urriaren 27an onetsitako Erregelamenduko 33.2 artikulua.

Gogorarazpen hori onartu egin zen.

#### 2. Osasun eta Kontsumo Ministerioari:

Kexa Nafarroako bi herritarrek aurkeztu zuten. Haiei, izan ere, Australian 31 urtez bizi ondoren, Espainiara itzultzerakoan, ez zitzairen eskubiderik aitortzen Gizarte Segurantzaren inongo pentsiorik jasotzeko. Gainera, prestazio mediko eta farmazeutikoetarako eskubidea izateko, herritar horietako bakoitzak 108,18 euroko kuotak ordaindu behar zituen, bai eta sendagaien kostuaren % 40 ere. Hori zela eta, eskatzen zuen prestazio mediko eta farmazeutikoetarako eskubidea izatea, Gizarte Segurantzak gainerakoei eskaintzen dizkien baldintza berdinetan.

Espainiako Arartekoak jakinarazi zien ezen, haien kexa jaso baino lehen ere, Osasun eta Kontsumo Ministeriora jo zuela, eta gomendio bat egin ziola behar ziren neurriak har zitzan, beharrezko lege-aldaketak egitearen bidetik, osasun laguntzarako eskubidea bermatzeko, eskubide publiko, subjektibo eta kontribuzio gabekotzat harturik, hartara Konstituzioan ezarritako printzipioak betetzeko.

#### 3. Enplegu Institutu Nazionalari:

Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen ez zegoelako ados Enplegu Institutu Nazionaletik jasotzen zituen prestazioak eteteko proposamenarekin, hain zuzen ere enplegu-eskaria ez berritzearen ondorioz. Azaltzen zuen ez zegoela ados enplegu-eskaria zigilatzeke edo berritzeke egun bakarra eta ordutegi zehatz bat ezartzearekin. Argudiatzen zuen ezen, langabezi egoeran egon arren, familia-betebehar batzuk bazituela –esate baterako, seme-alabak eta gaixorik zeuden gurasoak zaintzea–, eta hori zela eta oso zail gertatzen zitzaiola

egun bakar bat edukitzea izapide horiek egiteko. Gehitzen zuen gerta zitekeela enplegu-eskaria zigilatzeke edo berritzeke ezarritako egunean, osasun-arrazoiak tarteko, ezin bertaratzea.

Estatuko Arartekoak jakinarazi zion bere garai- an gomendio bat egin ziola Enplegu Institutu Nazionalari, hark kontsulta- eta ospitaleratze- parteak baliozkotzat jo zitzan enplegu-eskaria ezin berritzeke ziurtagiri gisa, baldin eta gaixotasunak lau egun baino gehiago irauten ez badu eta interesduna enplegu-bulegoan gaixotasun-egoera amaitu eta biharamunean edo ahal bezain laster bertaratzen bada.

#### 4. Justizia Ministerioari:

Gomendio honen jatorria Espainiako herritar baten kexa izan zen. Izan ere, harren bidez adierazten zuen ez zegoela ados Dominikar Errepublikatik heldutako herritar batekin ezkondu izana Erregistro Zibilean inskribatzeari ukatzearekin.

Espainiako Arartekoak jakinarazi zion erakundeak egoera hori aztertu zuela, zeren eta gai bera zela-eta kexa ugari jasoak baitzituen. Hori zela eta, ezkontza batzuk ez inskribatzeak ezkondatako edo ezkontzeko zorian zeuden pertsonen bizitzetan behar gabeko esku-sartzeak ekar zitzakeela jota, honako gomendioa egin zuen:

“Erregistro Zibiletako arduradunek eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak ezkontzak inskribatzeko edo baimentzeko orduan egiten duten interpretazioak, guztiz errespeta dezala herritar guztiek ezkontzeko duten eskubidea, eraginik gabe utziz Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 1995eko urtarrilaren 9ko jarraibidea. Horrenbestez, erregistroetako arduradunek ezkontideei soilik eskatuko dizkie Kode Zibilaren arabera legez exijituzekoak diren baldintzak, pertsonen ezkontzeko eduki beharreko gaitasunari dagokionean”.

#### 5. Kotsul-etxeen Gaietako eta Laguntzetako Zuzendaritza Nagusiari:

Algeriako nazionalitatea duen eta Nafarroan bizi den herritar batek bere desadostasuna azaldu zuen Espainiak Oranen duen Kotsul-etxeak bere arrebari turista-bisa ukatzeko arrazoirik ez ematearekin.

Espainiako Arartekoak, kexa behar ziren erakundeetan izapidetu ondoren, gomendio bat egin zion Kanpo Arazoetarako Ministerioako Kotsul-etxeen Gaietako eta Laguntzetako zuzendaritza Nagusiari, beste ebazpen bat eman zezan egonaldi-bisa baterako eskari baten harira, eta, bisa ukatzeotan, Atzerriartasunari buruzko Erregelamenduko 28.6 artikuluan ezarritakoa bete zezan.

Gomendioa ez zen onetsi.

**6. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari:**

Kexa trafikoko zehapen prozedura bateko froga bati ez erantzuteari buruz izan zen.

Kexa izapidetu ondoren, Espainiako Arartekoak Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari iradoki zion ofizioz berrazter zezala Nafarroako Trafikoko Probintziako Buruzagitzak izapidetutako zehapen espedientea, kontuan izanda hartan ageri ziren irregulartasunak, eta Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 102. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren arabera joka zezala. Iradokizuna onartu egin zen.

**7. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari:**

Kexak planteatzen zuen herritar batek jasandako babesgabetasuna, trafikoko zehapen espediente bateko dokumentazio jakin bat ezin eskuratzea-gatik. Behar diren izapideak egin ondoren, Nafarroako Arartekoak gomendatu zuen ofizioz aitor zedila zehapen espedientearen deuseztasuna, zehatutako subjektuak kontradikzio-probarako duen eskubidea urratzeagatik, ez baitzizaion biderik eman bere defentsarako behar zuen dokumentazioa eskuratzeko. Gomendioa onartu egin zen.

**8. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari:**

Hirugarren kasuan, herritar batek kexa bat planteatu zuen Guardia Zibilak ezarria zion salaketa batengatik, alkoholemia testa egiteari ezezkua eman ondoren. Herritarrak azaltzen zuen bihotz-gutxiegitasuna duela, eta hura txosten medikoen bitartez egiaztatzen zuen, eta hura zela eta ezin zuela etilometroan putz egin hark zuzen funtzionatzeko behar adinako indarrarekin. Kexa onartu eta izapidetu ondoren, Espainiako Arartekoak gomendioa egin zion Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari, erreferentziako espedientearen ezarritako zehapena ofizioz deusezta zezan, salatuari zuzenbidearen aurkako inongo jokabiderik ez zitzaiolako egotzi. Gomendioa ez zen onetsi.

**9. Administrazio Publikoetako Ministerioari:**

Nafarroako Trafikoko Probintziako Buruzagitzari atxikitako funtzionario batek kexa bat aurkeztu zuen, ados ez zegoelako hiru eguneko baimen ordaindu bat ukatzeagatik, bere izatezko bikotekidearen aita ospitalean ingresaturik egoteagatik.

Kexa Espainiako Arartekoari igorri zitzaion, eta azken horrek herritarrari jakinarazi zion ezen, ikuspuntu juridiko hertsitik, ez zela antolamendu juridikoaren arau-hausterik gertatu, zeren eta arauak ez baititu izatezko bikoteak jasotzen funtzionarioen baimen eta lizentzien kasuan. Hala eta guztiz ere,

jakinarazi zion ezen, gizartearen errealitatea azken urteetan aldatu denez, izatezko bikotea osatzen duten funtzionarioak, ezkondukoen aldean, leku-aldatze lehiaketetan baztertuta egoteari buruz aurkeztu zen beste kexa baten harira, honako gomendioa (hitzez hitz emana) egina ziola Administrazio Publikoetako Ministerioari:

“Estatuko administrazioaren zerbitzura langileak sartzeko eta Estatuko administrazio funtzionario zibilen lanpostuak betetzea eta lanbide-promozioa arautzen dituen Erregelamendua onestean duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuko 44. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letraren edukia-aren arabera merezimendu gisa soilik baloratu ahal denez, familia eta lana bateragarri egiteari dagokionez, ezkontide funtzionarioaren aurreko destinoa, eta hortaz, izatezko bikoteek punturik ezin dutenez lortu, zeren eta halakorik ez baita aurreikusten dekretu horrek garatzen duen lege-mailako arauan eta ezin baita ondorioztatu Administrazioaren erregelamenduz goragoko Zuzenbideko beste inongo printzipio orokorretatik, izatezko desberdintasun bat gertatzen ari da, hura justifikatzen duen arrazoi juridiko, objektibo, ekonomiko edo proportzionalik gabe, baldin eta leku-aldatze lehiaketetan parte hartzen duten funtzionarioek familia eta lana bateragarri egitea bultzatu nahi bada.

Bestalde, arauak, orokorrean, eta aipatutako araua, zehazki, aplikatu behar diren garaiko errealitate sozialaren arabera interpretatu behar direnez, Kode Zibileko 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio horri gomendatzen zaio haren interpretazio analogikoa egin dezan, ulertuta ezkontideari buruzko aipamen horretan, asimilazioz, izatezko bizikidea ere sartzen dela, baldin eta batasun hori egiazki finkaturik baldin bada.

Interpretazio hori egitea ezinezkoa dela jotzen bada, gomendatzen zaio behar diren neurriak har ditzala behar den aldaketa egiteko, halako moduz non erregelamendu-arau horretan sartuko baita “izatezko bikoteko beste kide funtzionario bat” edo antzeko zerbait, hartara orain gertatzen ari den bazterkeria desagerrarazteko.”

Gomendioa ez zen onetsi.

**10. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari Idazkaritza Nagusi Teknikoari:**

Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen ez zegoelako ados elektrizitatearen tarifen igoerarekin eta “gaueko tarifa elektrikoa” deitutakoa desagertzearrekin.”

Espainiako Arartekoak, arrazoi berarengatik aurkeztutako kexen ugaritasunaren ondorioz, gomendio bat egin zuen, Industria Ministerioak



azter zezan konpentsazioren bat ezartzeko aukera, hain zuzen ere ukitutako kontsumitzaileei aukera emate aldera tarifa elektrikoen aldaketaren ondorioz nozitutako galerak berdintzeko eta kalte ekonomiko horiek, neurri batean, arintzeko. Hala ere, gomendatu zuen zerbitzua antzeko baldintzetan emateko aldi iragankor luzeago bat ezartzeko, etxeetako edo negozioetako instalazio elektrikoa ordutegi-bereizkuntzako tarifa berriaren arabera egokitu ahal izateko.

Gomendioa ez zen onetsi.

**11. Barne Ministerioko Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiari:**

Espetxeraturik dagoen pertsona batek kexa aurkeztu zuen Europako Parlamenturako hauteskundeetan botoa emateko eskubideaz ezin baliatzeari buruz. Izan ere, botoa emateko dokumentazioa epez kanpo iritsi zen espetxera.

Espainiako Arartekoak gomendatu zuen ezen, etorkizuneko hauteskunde-prozesuei begira eta bere garaian, kexa-egileak planteatutako kasuan, posta bidez boto emateko eskubideaz baliatzea eragotzi zuten disfunczioak saiheste aldera, jarraibide zehatzagoak eman dakizkiela espetxe-establezimenduei, gaur egun dauden neurriek baino hobeki berma dezaten behar den dokumentazioaren eskariak espetxe bakoitzeko zuzendaritzara edo botoen kudeaketa esleituta daukan funtzionarioari behar den garaian iristea, boto horiek gero posta-zerbitzuari legez ezarritako epean eskuratu ahal izateko moduan.

Gomendioa onartu egin zen.

**12. Osasun eta Kontsumo Ministerioari:**

Banandutako emakume batek bere kexan azaltzen zuen ezkontidearengandik banandu ondoren osasun-laguntzarako eskubidea galdua zuela.

Espainiako Arartekoak jakinarazi zien ezen, gai hori aurreko urteetan jada aztertua zuela, eta Osasun eta Kontsumo Ministeriora jo zuela, eta gomendio bat egin ziola behar ziren neurriak hartitzan, beharrezko lege-aldaketak egitearen bidez, osasun laguntzarako eskubidea bermatzeko, eskubide publiko, subjektibo eta kontribuzio gabekotzat harturik, hartara Konstituzioan ezarritako printzipioak betetzeko.

**13. Hezkuntza Ministerioko Unibertsitate Presetakuntzako eta Orientazioko Zuzendaritza Nagusiari:**

Herritar batek bere desadostasuna azaldu zuen Hezkuntza Ministerioak unibertsitate-ikasketarako beka bat itzul zezan eskatzeko erabilia zuen prozedura zela eta, zeren eta ez baitzioten

behar bezala informatu alegazioak aurkezteko aukerari buruz, ez eta zorra borondatezko aldian ordaintzeko epeari buruz ere.

Espainiako Arartekoak gomendatu zuen behar bezalako jarraibideak eman zekizkiela beka izapidetzeko unitate desberdinei, halako moduz non ikasteko beka edo laguntzaren bat emateko ebazpenean deuseztasun-arrazoiren bat gertatuz gero edo laguntzak itzultzeko arrazoiren bat gertatuz gero, inguruabar hori bekadunari helarazi eta behar ez bezala jasotako zenbatekoa Altxor Publikoari itzultzeko jakinarazpenetan, behar bezala zehatz dezaten itzulketa zein epean egin behar den, itzultzeko espedientea has dadin eragozteko.

Gomendioa onartu egin zen.

**14. Erregistroen eta Notarioraren Zuzendaritza Nagusiari:**

Espainiako herritar batek kexa aurkeztu zuen Nigeriako nazionalitatea duen bere emaztea Espainiara etortzeko ezarritako trabengatik, eta Espainiak Nigerian duen kontsul-etxeak ezkontza inskribatzeari ezezkua ematearen aurkako apelazio-errekurtsoa ebatzi ez izategatik.

Justiziako Estatu Idazkaritzan zenbait izapide egin ondoren, Espainiako Arartekoak gomendatu zuen kontsul-etxeak bisa izapide zezan, aurretik egoitza-baimena edo familia birbiltzeko baimena kasuko gobernuaren ordezkartitzan edo azpiordezkartitzan eskatu gabe.

**15. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari:**

Nafarroako energia fotovoltaiakoko ekoizleen kolektiboak kexa bat aurkeztu zion Nafarroako Arartekoari, Sektore elektrikoaren tarifa-defizita zuzentzeko presako neurriak ezartzen dituen abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legearen deusezta dadin eskatzeko, zeren eta araupe-tze berria oso kaltegarria baita bere interes ekonomikoetarako.

Erakunde honek, planteatutako kexa Espainiako Arartekoari helarazteaz gainera, irizpen bat egin zuen kexan azaldutako gaiari buruz, eta irizpen hori kexarekin batera igorri zion Gorte Nagusietako Arartekoari. Irizpenaren ondorioa zen behar adina arrazoi bazegoela Konstituzio Auzitegian konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio bat aurkeztutako abenduaren 23ko 14/2010 Errege Dekretu Legeko lehenengo xedapen gehigarriaren eta bigarren xedapen iragankorraren aurka.

Espainiako Arartekoak bere erabakia helarazi zigun, alegia, ez zuela egoki ikusten konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztea.

Hala eta guztiz ere, araudi berria aztertu ondoren, Espainiako Arartekoak honako gomendioa egin zion Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari:

“Organo eskudunek, munduko abagune berria kontuan izanda, balora dezatela instalazio fotovoltaiako ordu baliokideen produkzioa handitzeko agindua emateko aukera, Espainiako klima-eremu desberdinen arteko bereizkuntzak eginez. Halaber, gomendatzen da ezen, ziurgabetasun-egoerak saiheste aldera, araudi egonkor eta argia presta dezala araubide bereziko sektore elektrikorako”

**16. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari:**

Kexan azaltzen zen herritar bat ez zegoela ados bere erretiro-pentsioaren oinarri arautzailearen kalkuluekin. Kalkulu hori egina zegoen hogeita hemezortzi urtez lan egiten Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean eta Autonomoen Araubide Berezian kotizatzen jardun ondoren. Desadostasunaren oinarria zen Araubide Orokorrean eta langile autonomoen araubidean araupezea desberdina izatea. Desberdintasun hori baztertzaila eta justifikazio gabekoa iruditzen zitzaion.

Espainiako Arartekoak jakinarazi zion ezen, kexa hori baino lehenago ere, gomendio bat igorria ziola Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari, behar ziren arauak presta zitzaizkien Gizarte Segurantzako araubide berezien babes-ekintza eta Araubide Orokorreko babes-ekintza homogeneizatze aldera, oraindik ere homogeneotasunik ez dagoen kasuetan, eta estaldura-maila berdin zezala. Halaber, gomendatzen zuen prestazio desberdinak eskuratzeko exijitzen ziren baldintzak homogeneizatzeko, eta bere horretan uzteko soil-soilik arrazoi hertsiki teknikoengatik justifikatuta egon daitezkeen berezitasunak.

## **VI. ESPAINIAKO ARARTEKOAK NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN GAI NEAN EGINIKO IKUSKATZEA.**

### **6.1. NAFARROARI BURUZ JASOTAKO KEXAK.**

Estatuko Arartekoak 2007., 2008., 2009. eta 2010. urteei buruz eginiko urteko txostenek honako datuak jasotzen dituzte Nafarroatik heldutako kexei buruz:

2007an:

- Nafarroatik 119 kexa aurkeztu ziren. Kexa horiek Espainiako Arartekoak urte horretan jasotako kexa guztien % 0,71 egiten dute <sup>(1)</sup>.

- Horietatik, 112 kexa banakakoek aurkeztu zituzten, eta 7 kexa, berriz, talderen batek <sup>(2)</sup>.

- 119 kexetatik, 59 Nafarroako Arartekoari igorri zitzaizkion, zeren eta Estatuko Administrazio Orokorrearen menpeko organoen jarduketei buruzkoak baitziren <sup>(3)</sup>.

2008an:

- Nafarroatik 196 kexa aurkeztu ziren. Kexa horiek Espainiako Arartekoak urte horretan jasotako kexa guztien % 0,84 egiten dute <sup>(4)</sup>.

- Horietatik, 167 kexa banakakoek aurkeztu zituzten, eta 29 kexa, berriz, talderen batek <sup>(5)</sup>.

- 196 kexetatik, 84 Nafarroako Arartekoari igorri zitzaizkion, zeren eta Estatuko Administrazio Orokorrearen menpeko organoen jarduketei buruzkoak baitziren <sup>(6)</sup>.

2009an:

- Nafarroatik 199 kexa aurkeztu ziren. Kexa horiek Espainiako Arartekoak urte horretan jasotako kexa guztien % 0,92 egiten dute <sup>(7)</sup>.

(1) Arartekoaren 2007ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 50. orrialdea. Txostenean ez da zehazten kexa horietatik zenbat ziren Estatuko Administrazioaren jarduketari buruzkoak eta zenbat Nafarroako administrazio publikoaren jarduketari buruzkoak.

(2) Arartekoaren 2007ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 53. eta 54. orrialdeak.

(3) Arartekoaren 2007ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 58. orrialdea.

(4) Arartekoaren 2008ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 45. orrialdea.

(5) Arartekoaren 2008ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 49. eta 50. orrialdeak.

(6) Arartekoaren 2008ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 53. orrialdea.

(7) Arartekoaren 2009ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 47. orrialdea.

- Horietatik, 163 kexa banakakoek aurkeztu zituzten, eta 36 kexa, berriz, talderen batek <sup>(8)</sup>.

- 199 kexetatik, 67 Nafarroako Arartekoari igorri zitzaizkion, zeren eta Estatuko Administrazio Orokorreko organoen jarduketei buruzkoak baitziren <sup>(9)</sup>.

2010ean:

- Nafarroatik 215 kexa aurkeztu ziren. Kexa horiek Espainiako Arartekoak urte horretan jasotako kexa guztien % 0,63 egiten dute <sup>(10)</sup>.

- Horietatik, 174 kexa banakakoek aurkeztu zituzten, eta 41 kexa, berriz, talderen batek <sup>(11)</sup>.

- 215 kexetatik, Nafarroako Arartekoak 87 bidali zizkion Espainiako Arartekoari, Estatuko Administrazio Orokorrearen organoen jarduketei buruzkoak izateagatik <sup>(12)</sup>.

Ondoren txertatu dugun laburpen-etaulak islatzen duen bezala, azkeneko lau urteetan Espainiako Arartekoak Nafarroatik jaso dituen kexen % 40,7 Nafarroako Arartekoak bidalitakoak dira, zeren eta Estatuko Administrazio Orokorrearen edo haien organo periferikoen funtzionamenduari buruzkoak baitira.

	2007	2008	2009	2010	Guztira
Nafarroatik jasotako kexak	119	196	199	215	<b>729</b>
Nafarroako Arartekoak igorritako kexak	59	84	67	87	<b>297</b>
Igorritako kexen ehunekoa	% 49,6	% 42,9	% 33,7	% 40,5	<b>% 40,7</b>

## 6.2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN AURREAN EGINIKO OFIZIOZKO JARDUKETAK-

2007tik 2010era, Espainiako Arartekoak, bere urteko txostenetan ageri den bezala, 24 ofiziozko jarduketa egin ditu Nafarroako administrazio publikoen aurrean. Horien artean, urteko txostenetan honako hauek dira aipagarri:

2007an:

1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, Nafarroako Foru Komunitateko funtzio publikoan jazarpenak duen eraginari buruz.

2. Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, murgilketari profesionalen egoerari buruz.

3. Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, Nafarroako lurralde esparruan bizi eta gaixotasun arraro edo ezohikoak dituzten pertsonen premia bereziei erantzuna eman ahal izateko neurri zehatz eta egiturazkoak ezartzeko Nafarroan egon daitezkeen aurreikuspenei buruz.

4. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006

Legeak eskubideak praktikan jartzeari buruz planteatzen diren arazoak ezagutzeko.

5. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, gaixotasun kronikoak, metabolikoak eta abarrekoak direla-eta batzuetan ikasleek eskola-esparruan behar izaten duten osasun laguntza jasotzeko dauden zailtasunen gaineko kexek gora egin izateari buruz. Ezarrita dauden arauak, jarraibideak eta jarduketa-protokoloak ezagutu nahi dira.

2008an:

1. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari, jokabide nahasteak dituzten eta gizarte egoera zailean dauden adingabeak babes-teko zentroeiei buruzko informazioa eskatzeko.

2. Osasun Departamentuari, osasun zerbitzuetako estatutupeko aldi baterako langileen hirurtekoiei buruz.

2009an:

1. Hezkuntza Departamentuari, haren kudeaketa-esparruan dislexia duten ikasleek jasotzen duten hezkuntza-arreta desegokiari buruzko kexak behin eta berriz egoteari buruz.

2. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari, Espainiako Arartekoak "jokabide

(8) Arartekoaren 2009ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 52. eta 53. orrialdeak.

(9) Arartekoaren 2009ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 55. orrialdea.

(10) Arartekoa. Gorte Nagusietarako 2010eko Txostena. 19. orrialdea.

(11) Arartekoa. Gorte Nagusietarako 2010eko Txostena. 24. eta 25. orrialdeak.

(12) Arartekoa. Gorte Nagusietarako 2010eko Txostena. 28. orrialdea.

nahasteak dituzten eta gizarte egoera zailean dauden adingabeak babesteko zentzuzko buruzko txosten monografikoan eginiko gomendioen jarraipenari buruz.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari, informazioa eskatzeko Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoak hari dagokion eskumenen esparruan aplikatzeari buruz.

4. Hezkuntza Departamentuari, telebista-programazioa eta interneteko eduki batzuk direla-eta adingabeen eskubideak bermatzeko eta babesteko hartutako neurriei buruz.

5. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari, "Gertatzezko garun-kalteak Espainian"-izenburuko txosten monografikoan Espainiako Arartekoak eginiko gomendioak departamentu horri dagokion eskumenen esparruan noraino bete diren ezagutzeko.

6. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari, zenbait adierazpen publikoetan erabiltzaileek salatu izan dutelako energia elektrikoa hornitzen duten enpresek balizko irregulartasunak egin dituztela 2008ko abenduko eta 2009ko urtarileko hilabeteetako kontsumoaren tarifak ezartzeko.

2010ean:

1. Osasun Departamentuari, Osasun Sistema Nazional osoan laguntza bidezko giza ugalketako teknikak aplikatzeko dauden itxaron zerrendei buruz.

2. Osasun Departamentuari, aldi baterako barne-sustapeneko egoera administratiboan emandako lanbide-zerbitzuak ezagutzeko eta haiei tratamendu homogeneoa emateko, egiazki betetako funtzioei dagokien taldeko hirurtekoak eskuratzeari ondoz ondo, behin estatutupeko langile finkoaren goragoko kategoria eskuratzen denean, Nafarroako osasun sisteman.

3. Hezkuntza Departamentuari, eskola-instalazioen gaitasun ez-nahikoari buruzkoa, arazoari ekiteko, batzuetan, erabili diren behin-behineko

neurriei buruzkoa eta aipatutako jokabide horietatik heldu diren ondorio negatiboak buruzkoa, ikasleen hezkuntza-prozesuaren kalitatearen ikuspuntutik.

4. Osasun Departamentuari, lege-aldaketa bat bultzatzea dezan farmazia-prestazioak antolatzeari buruzko legegintza-eta, zehazkiago, farmazia-bulego berrien adjudikazioari dagokionean- lege-erreserba bat finkatu ahal izateko ezgaitasunen bat duten pertsonentzat, ekintza positiboko neurri gisa.

### 6.3. NAFARROAK ADMINISTRAZIO PUBLIKO-EK EGINIKO IKERKETAK.

Oro har, 36 izan ziren Espainiako Arartekoak Nafarroako administrazio publikoari buruz 2007tik 2010era bitartean eginiko ikerketak; horietatik 12 kexa-espeditenteei dagozkie eta 24, berriz, aurreko atalean aipatutako ofiziozko jarduketek.

Hona urteen arabera banaketa:

- 2007an, zazpi ikerketa gin zituen, eta horietatik bost amaitu zituen. Horietatik, hirutan egiaztatu zen ikuskatzen ari zen Nafarroako Administrazioak zuzen jardun zuela. Gainerako bi ikerketak itxi gabe zeuden urtearen amaieran <sup>(13)</sup>.

- 2008an, banakakoen kexengatik ikerketak eta Nafarroako administrazioei buruz eginiko ofiziozko jarduketengatik ikerketak sei izan ziren. Horietatik, hiru amaitu ziren. Horietatik, batean egiaztatu zen ikuskatzen ari zen Nafarroako Administrazioak zuzen jardun zuela. Urtearen amaieran, oraindik ere hiru ikerketa izapidetzen ari ziren <sup>(14)</sup>.

- 2009an, hamaika ikerketa egin ziren, eta horietatik lau amaitu ziren <sup>(15)</sup>.

- Azkenik, 2010ean, hamabi izan ziren banakakoen kexa-espeditentengatik eta ofiziozko jarduketengatik ikerketak. Horietatik, bat banakako baten kexa batetik etorri zen; gainerako hamaikak, berriz, ofiziozko jarduketek zegozkien <sup>(16)</sup>.

Nafarroako administrazio publikoari buruz eginiko ikuskatzearen ondoren, Espainiako Arartekoak banakako bi gomendio igorri ditu; hain zuzen ere, hurrengo puntuak zehazten direnak dira.

(13) Arartekoaren 2007ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 66. orrialdea.

(14) Arartekoaren 2008ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 63. orrialdea.

(15) Arartekoaren 2009ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 63. orrialdea.

(16) Arartekoa. Gorte Nagusietarako 2010eko Txostena. 36. orrialdea.

#### 6.4. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI BANAKA ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK.

##### 6.4.1. Hezkuntza Departamentuari (17):

*Irakaskuntza ez unibertsitarioko kidegoetan sartzeko erregelamenduaren aplikazioari buruzko gomendia.*

Herritar batek azaldu zuen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak irakaskuntza-kidegoetan sartzeko eginiko deialdi baten aplikaziotik etorri den arazoa. Salatu zuen irakaskuntza-kidegoetan sartzeko hautagaiek zailtasunak zeuzkatela ariketa baten orde zerbiztuak emandako kasuko hezkuntza administrazioaren txosten bat aurkezteko aukera gauzatzeko, hezkuntza administrazio hori Nafarroakoa ez zen kasuetan.

Arartekoak adierazi zuen ezen, Irakasle kidegoetan sartzeari eta haietan espezialitate berriak hartzeari buruzko Erregelamenduan –otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaz onetsi zen– ezarritakoaren ondorioz –erregelamendu horren 61.2.B.2) artikuluan aurreikusten da ariketa baten orde txosten bat aurkeztu ahal izatea– Hezkuntzako Konferentzia Sektorialeko Langileen Batzordeak bilera bat egin zuela, eta bilera hartan autonomia erkidegoek gai horri buruz hitz egin zutela, baina ez zirela iritsi behar ziren akordioak zehaztera, hain zuzen ere administrazio bakoitzak bere lurralde-esparruan azterketak eginen zituztenaldi baterako langileentzako txostena egiteko moduari dagokionez.

Horrenbestez, txostenaren eskaria egiteko konpromiso argirik ez zegoenez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ezezkoa eman zion Aragoitik zetorren irakasle batentzako txostena egiteari.

Estatuko erakundeak departamentu horri iradoki zion ezen, irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen kidegoetan sartzeko Nafarroan etorkizunean egiten diren deialdietan, behar diren neurriak har ditzan unitate didaktikoari buruzko txostena aurkezteko eskubidea ziurtatze aldera, hain zuzen ere Nafarroakoaz beste hezkuntza administrazio batean lan egiten zuten izangaien kasuan, dela txostena egiteko konpromisoa ziurtatuz, dela autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaren hitzarmenak eginez; edo, bestela, beste autonomia-administrazio batzuek beren deialdietan ezarri duten bezala,

bere administrazioaren kargura eginez oposizio-egileek eskatzen dituzten txostenak.

##### 6.4.2. Berriozarko Udalarari (18):

*Herritarrek aurkeztutako idazkiak jaso izatearen berri emateko beharrari buruzko gomendia.*

Berriozarko Udaleko udaltzain batek azaldu zuen ez zuela Udalarari aurkeztutako idazki baten erantzunik jaso.

Berriozarko alkatetzak herritar horrek aurkeztutako idazkiari erantzunik ez ematea justifikatu zuen esanez udalak ulertua zuela idazki horrek ez zuela berehalako erantzunik exijitzen, eta bidezkoa zena zela hain zuzen ere aurkeztutako alegazioak etorkizuneko jarduketetan kontuan izatea bizilagunen iritzi gisa.

Espainiako Arartekoak udalarari jakinarazi zion haren alegazioak uler zitezkeela, baina inolaz ere ezin zela justifikatu interesdunari komunikaziorik ez bidaltzea, gutxienez ere idazkia jaso izateari buruz, eta gomendatu zion behar ziren jarraibideak eman zitzala organo eskudunek idazkiak jaso izatearen berri eman dezaten, oro har, jasotzen dituzten idazki guztien kasuan, herritarrek idatziz jasota izan dezaten udalak idazki horiek egiazki jaso dituela, eta behar den izapideak eginen dituela. Hori guztia berme eta segurtasun juridikoaren printzipioei jarraituz.

#### VII. ONDORIOAK.

**Lehena.** Azaldutako datuetatik ondoriozta daiteke Nafarroako Arartekoak eta Espainiako Arartekoak elkarri laguntzeko eta elkarren leialtasunezko harreman positiboak dauzkatela, eta harreman horiek direla eta, eta elkarri laguntzeko eta lankidetzako bitarteko eragingarrien bitartez, beren ikuskatze-eginkizunak betetzen dituztela eta herritarren eskubideak eta askatasunak babesteko xedea osotasunez eta eraginkortasunez betetzen dutela, haien eginkizunak betetzerakoan inongo gainjarpenik gertatu gabe.

**Bigarrena.** Nafarroako herritarrek erakunde horien eskumenen esparrua ezagutzen dute, eta zein administrazio publiko ikuskatzea nahi duten, dagokion erakundearen esku-hartzea eskatzen dute. Hori dela eta, Nafarroako administrazio publikoan jarduerari buruzko kexa ia guztiak Nafarroako Arartekoari aurkeztu zaizkio, eta hark behar diren ikerketak egiten ditu eta haietatik eratorzen diren gomendio eta iradokizunak egiten ditu. Nafarroako

(17) Arartekoaren 2008ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 794. orrialdea.

(18) Arartekoaren 2008ko urteko txostena eta Gorte Nagusietako eztabaidak. 926. orrialdea.

Arartekoak, gero, Nafarroako Parlamentuari ematen dio egin duen kudeaketa-lanari buruzko informazioa.

**Hirugarrena.** Nafarroako Arartekoaren erakundearen Estatuko Administrazioaren eta haren organo periferikoen jarduketari buruz jasotako kexak 559 dira, hain zuzen ere Nafarroako Parlamentuaren ordezkariak guztira jaso dituen kexen ehuneko 9,85.

Bestalde, Nafarroako Arartekoa ere existitzeak aukera ematen die Nafarroako herritarrei Espainiako Arartekoari aurkeztu nahi dizkieten kexak Iruñean bertan aurkezteko eta osatzeko, bai eta kexa aurkezteko moduari buruzko aholkuak jasotzeko ere. Estatuko parlamentu-organismoak Nafarroari buruz jaso zituen kexen % 40,7 lehenengo unean Nafarroako Arartekoaren bulegoan aurkeztu ziren.

Kexa horiek Espainiako Arartekoari igortzen zaizkio, bera baita haiek ikuskatzeko eskumena daukan organoa.

Horrelakoetan, elkarri laguntzeko eta lankidetzako printzipioak komunikazio arin batean gauzatzaren dira, bai eta bi erakundeek elkarri ematen dioten babesean, hain zuzen ere Espainiako Arartekoak herritarrak azaldutako kexa ebatz dezan.

**Laugarrena.** Batzuetan modu sinpleegi batez esaten bada ere eginkizun bererako bi erakunde (estatukoa eta foru erkidegokoa) daudela, izatez eta errealitatean, bi erakundeek, batetik, berezko eginkizunak eta eginkizun desberdinak dauzkate eta, bestetik, ikuskatzeko metodo eta irizpide desberdinak ere badauzkate.

Horrela, praktikan, bi erakundeen arteko lankidetzak eta laguntzak bidea ematen du Nafarroan eta nafarren gainean diharduten administrazio publiko guztien jardura ikuskatzeko.



